



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 16an

8 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (4. or.).
- Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua. Proiektua erretiratu egin dute (14. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Enpresarioei, komunikabideei eta kazetariei egindako mehatxuak gaitzesteko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (15. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Nafarroan bide biologikoen sarea eratzeko oinarritzko azterlanari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (16. or.).
- Abelbideen gaineko jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (17. or.).
- Abelbideak sailkatu, mugatu eta zedarritzeko jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (18. or.).
- Nekazaritza-lurren prezioek 1998an izan duten bilakaerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (19. or.).
- Joan den urteko lan-istripuen kopuruari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egin (20. or.).
- 1998an Gobernuako departamentuetan egin diren aparteko orduetarako buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egin (20. or.).

**G SAILA:**

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko apirilean bidali dituen Erabakiaren eta Ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (22. or.).

**H SAILA:**

**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

—20/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (30. or.).

—21/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (32. or.).

—Nafarroako Basoei buruzko Plana. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (33. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1999ko otsailaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Bozera-mailen Batzarra entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**Lehena.-** Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**Bigarrena.-** Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Emendakinak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**Hirugarrena.-** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Jokoari buruzko 11/1989 Foru Legeak, bere 8. artikuluko 2. idazatian, finkatzen du Nafarroan

joko makina saridun hauei baizik ez zaiela baime-nik emanen: partida edo jokaldiaren prezioaren truke erabiltzaileari erabiltzeko edo jokoan aritzeko denbora tarte bat uzten diotenak eta, hala tokatzen bada, sari bat ematen diotenak, inoiz ez partidaren prezioa halako hogeai baino gehiagokoa.

Joko Makinen erregelamendua onesten duen uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuak, Jokoari buruzko Foru Legea garatzeko emanak, bere 2. artikuluan xedatzen du Nafarroan joko makina bat inskribatzeko, makina horrek nahitaez B motako makinatzat inskribaturik behar duela Joko Batzorde Nazionalaren Eredu Erregistroan, apirilaren 27ko 593/1990 Errege Dekretuak onetsitako erregelamenduaren arabera.

Erregelamenduari hots egite horrek honezkero ez du zentzurik, apirilaren 27ko 593/1990 Errege Dekretua azaroaren 2ko 211/1998 Errege Dekretuak indargabetu baitu, zeinak onesten baitu Jostetako eta Zorizko Makinentzako Erregelamendu berria. Erregelamendu horrek ez ditu behartzen “B” motako makinak Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legearen 2. idazatian aipatzen den baldintza kunplitzera, eta ikuspuntu tekniko batetik, gainera, makina horiek bat baitabilza teknologiaz eta ekonomiaz hain dinamikoa den sektore bateko berrikuntzekin.

Halatan bada, aipatu Foru Lege horren 8. artikulua aldatzen da, ez dezan eragotzi joko makinak arautzen dituen foru araudia errealitate berrira moldatzeko behar den erregelamendu garapena.

**Artikulu bakarra.-** Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legearen 8. artikulua berritzen da, eta honela idatzirik uzten:

“8. artikulua. Joko makinak.

1. Hauek jotzen dira joko makinatzat: erregelamenduak ezartzen dituen ezaugarriak eta mugak bete eta partidaren prezioaren truke erabiltzaileari erabilerarako eta jokorako denbora tarte bat ematen diotenak eta bai, hala tokatzen bada, joko pro-

grama zein den edo zoriak hala agintzen badu, sari bat ere.

2. Gainera hauek ere hartuko dira joko makinatza: joko, apustu edo zorizko osagaien bat iza-teagatik Lehendakaritza eta Barne Departamentuak halakotzat jotzen dituenak, non eta hurrengo idazatiak aipatzen dituen salbuespenetan sartzen ez diren.

3. Foru Lege honetatik kanpo daude salmenta makinak, baldin eta produktuak, salgaiak edo zerbitzuak mekanikoki trukatu edo saldu besterik egiten ez badute, beti ere baldin eta jarritako diruak makinan bertan produktu horietarako adierazten den prezioarekin bat egiten badu eta makinaren mekanismoak ez badu inolako apustu, zorizko konbinazio edo zoraizko jokotarako aukerarik

ematen, eta bai josteta hutseko makinak ere, ez badute inolako saririk ematen, zuzeneko nahiz zeharbidekorik, erabilera denbora errepikatzeke aukera besterik.”

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena.** Indargabetu egiten dira Foru Lege honetan xedatzen denari kontra egiten dioten arau guztiak.

**Hirugarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua**

### **AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1998ko abenduaren 1eko 92 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **OSOKO EMENDAKINAK**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen diogu Gobernuari itzul diezaion Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua.

Zioak: Foru Lege proiektuak merkataritza-gune handien ezarpena “erabat eta osorik” araupetu nahi du, hala merkataritzaren ikuspegitik nola lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik; horre-

tarako beharrezkoa den hirigintza tresna batean eta merkataritzako berariazko lizentzia eskuratzeke beharrezkian oinarritzen da. Lizentzia hori alderdi garrantzizkoena bihurtzen da, izan ere gainerako eskuhartzeak baldintzatzen dituelako.

Hala eta guztiz ere, araupetze horretatik, oro har, ondoriozta daiteke lurraldearen eredia dela merkataritzako lizentzia berezia emateko irizpideak zehazten dituenak. Hartara, justifikatu nahi da araupetze berriaren eraginkortasuna datorren legegintzaldira arte atzeratzeak berekin ekarriko duen lizentzien etetea; horrek ondorio argi eta zuzenak ekarriko ditu betetzen ari diren, programatuta dauden edo izapidatzen ari diren jarduketetan.

Legegintzaldiaren amaieran lurraldearen eredia buruzko azterlan bat egiteko beharrezkian oinarrituriko lege proiektu hau igorri da, gainera lizentzien etetea ekarri; horrek arauaren balio-ez borobilena bermatzen du. Ez ote da izan hori lege proiektuak bilatzen duen benetako xedea, hau da, ekimenak eta espedienteak geldiaraztea harik eta azterlana egin arte, noiz-eta inguruabar hauetan inork ez dakien egunen batean? Zertarako gelditzea Gobernuak berak, orain artekoan, lurraldea aztertzeke edo araua Parlamentura igortzeke ekimenik burutu ez duenean? Zein justifikazio du Gobernuak ekimen publiko eta pribatuak geldiarazi nahi izatea bere eraginkortasun eza eta

aurreikuspen gabezia lege proiektuan bertan agerian gelditu direnean? Ez al da Gobernuaren zuhurtziarakotasuna handitzen proposatzen diren eskuhartze-termino guztietan? Ez al du legeak eta haren denborazko eta garapenezko inguruabarrak bazterkeria eta tratu antisoziala sustatzen? Ez al zaie galaraziko toki entitateei beren lurraldean jarduketak burutzea beren planeamenduaren arabera eta berezko duten autonomia erabiliz? Ez al da oztoporik jartzen ari lana sortzen duten eta guttion hobetzea ekartzen duten inbertsioak egiteko, Gobernuak ezarritako denborak jada sendotu dituen bestelako jarduketan onerako? Zergatik atzeratu du Gobernuak duela urtebete prestatzen ari zen lege proiektu baten Parlamentuko izapidaketa? Zergatik korporazioen horrenbestearainoko presentzia proiektua prestatzeko eta baimentzeko prozeduran, Gobernuak interes orokorra bere sektorearen interesen zehazten duen gizartearen zati baten zaintzailearen papera eginez?

Hori guztia, gainera, lege hutsunerik ez dagoen arlo batean, izan ere maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretuak azalera handiko merkataritzako instalazioak lurralde eta hirigintzako betebeharren arabera paratzeko arauak eman baitzituen. Hori guztia, Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean ezarritakoa betetzeko, nahiz eta lege hori oinarrizkoa den eta Estatu osoan indarrean dagoen.

## 2. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Merkataritza-gune handien ezarpena araupeetzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakiola eskatzen da.

Zioak: Ez gaude ados Nafarroako Gobernuak gaia aztertzeko erabiltzen dituen irizpideekin; nahasgarriak eta kontraesankorrak dira, eta ez dira beharrezkoak.

## 3. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan ezarritakoren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak ditu barne merkataritzaren arloan, "deuse-tan ukatu gabe prezioen politika orokorra, ondasu-

nen zirkulazio librea lurralde nazionalean eta konkurrentziaren defentsari buruzko legeria".

Gero, urtarrilaren 7ko 2/1988 Foru Dekretuaren bidez eta hura ordeztu zuen maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, azalera handiko merkataritzako instalazioak lurralde eta hirigintzako betebeharren arabera paratzeko arauak eman ziren.

Halaber, Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legeak, oinarritzko izaera duenak, ezarri du merkataritza-gune handiak zabaltzeko, alde zurretik merkataritzako lizentzia berezia izan behar dela, eta lizentzia hori ematea autonomi erkidegoei dagokiela; jarduera sailkatuei buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeak esparru hori, hau da jarduera horretarako lizentzien ematea, araupetzen zuen.

Hori guztia dela eta, ondokoa Parlamentuko Talde Sozialistaren iritzia:

- Nafarroak gaur egun tresna aski ditu egiten diren eskariei erantzuteko, merkataritza-zentro edo -guneei dagokienez, betiere indarrean dauden arauak jarraituz (1989ko abenduaren 5eko 154 Foru Legea eta urtarrilaren 7ko 2/1988 Foru Dekretua).

- Egoera honen aurrean, ez dugu ulertzen zein den Nafarroako Gobernuak egin duen proposamen honen justifikazioa, izan ere Nafarroan ez baitago horrelako zerbitzuen egiazko beharrik, alde zurreko azterlan sakon eta zehatzik egin ez delako.

- Beraz, uste dugu Foru Lege proiektu hau ez dela ez egokia eta ez beharrezkoa; izan ere, derri-gorrezkoa eta beharrezkoa da alde zurretik gure erkidegoan diren beharren azterketa egitea; azterketa horrek barne hartu eta arautu behar ditu ez bakarrik merkataritza-guneak eta jatetxeak, baizik eta baita ere aisialdiarekin, kulturarekin zinematikiekin eta abarrekin loturiko guztiak; alderdi horiek guztiak aipatu ere ez dira egiten eztabaidatu eta onesteko aurkezten dituzten proiektuan.

Hori guztia dela-eta Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakiola eskatzen dugu.

## 4. EMENDAKINA

### «EZKER ABERTZALEA»

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Merkataritza-gune handien ezarpenak eragin negatiboak ditu ondokoetan: gizartean, banakako-engan, lanean, ekonomian eta hirigintzan. Egia

esan, halako merkataritza-gune erraldoiak sor ditzaketen kapital handiez beste inork ez du onuririk lortzen duintasunik gabeko lan baldintzetan, erosleak engainatzeko trikimailuetan, justiziarik gabeko lehia eta lehia oldarkorreetan oinarrituriko negozio horretatik; gainera, kalte egiten dio merkataritza txiki tradizionalari, eta sortzen duen lehenbiziko ondorioa da merkataritza txiki horiek piskanaka desagertzea eta hiriguneak hutsik gelditzea merkataritzaren ikuspuntutik.

Hori dela eta, modu horretako merkataritzaren aurrera egite itxuraz geldiezinari kontrapisua jarri behar zaio Administrazioaren jardueren bidez; izan ere, lan baldintzen duintasuna, kontsumitzailearen duintasuna eta denda txiki tradizionalen duintasuna eta irautea errespetatu daitezkeen baldintzetatik; gainera, gure inguruan, denda txiki horiek famili negozioak izaten dira gehienetan.

Erabaki proposamena

1.- Gobernuari itzultzea Merkataritza gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua.

2.- Gobernua premiatzea merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektu bat aurkez dezan; hartan, ondoko alderdiak bilduko dira:

A) Nafarroa osoko merkataritza-eremuei buruzko plangintza burutuko da.

B) Merkataritza-establezimendu horien ezarpenak eragindako eskualdeetako merkataritza tradizionalen sortzen dituen ondorioak ebaluatuko dira.

C) Enpresa instalatzaileei lan arloko gutxieneko baldintza batzuk betetzeko exigituko zaie (kontratu finkoak, prestakuntza eta abar).

D) Ukitutako herrietan kontsumo arrazionalari buruzko informazioa zabalduko da, merkataritza-gune handiek gehiago saltzeko erabiltzen dituzten trikimailuen berri emanez.

Baldintza horiek eta udalaren eta eskualdearen plangintzan ezarritako hirigintza alorrekoak (lizentziak, eraikuntza, hirigintza, aparkalekuak, sarbideak eta abar) bete ondoren, baimena emanen da merkataritza-gune handiak ezartzeko.

## **ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

### **2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko emendakina. Ondoko testua proposatzen da:

“1. Foru Lege honetan ezarri denaren ondoretarako, merkataritza-gune handiak izanen dira edozein gai txikizka saltzeko establezimenduak, betiere erakusketarako eta salmentarako 2.500 metro koadro baino gehiagoko azalera erabilgarria dutenak (Iruñean, haren eskualdean eta 12.000 zuzenbideko biztanle baino gehiagoko udalerrietan) edo 1.500 metro koadro baino gehiagoko azalera erabilgarria dutenak (gainerako udalerrietan). Saillapen hori instalazioaren unean egiten da, edo bestela ondoko ondoko zabalkuntzak egin ondoren azalera hori iristen bada.

Azalera erabilgarria da zuzenean erakusketarako eta publikorako salmentarako tokia hartzen duena, barrutiaren barrenean mugitzeko behar dena barne. Ez da azalera erabilgarritzat joko langileentzat eta bezeroentzat behar diren zerbitzuak, biltegiak, banaketa lanak, instalazioak eta bulegoak hartzeko tokia.

2. Merkataritza-gune handiek banakako osakeria izan dezakete edo bestela merkataritzako lokal lokabeek osatzen dituztenak izan daitezke, eraikin edo esparru bakarrean daudenak, erakunde batek edo gehiagok plangintza egin eta garatuta egon daitezkeenak baina merkataritza-irizpide baterakoarekin, esparru eta zerbitzu erkideekin eta irudi edo/eta kudeaketa bakarria dutenak.”

Zioak: Testua 7/96 Oinarrizko Legean ezarritakoari egokitu zaio, eta erregelamendu izaerako zehaztapenak kendu zaizkio; elementu nahikoak ezarri dira gaia gero batean gehiago araupetu ahal izateko.

#### **2. EMENDAKINA**

##### **«MARTIN LANDA MARCO»**

##### **FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

2.1.a) artikulua aldatzeko emendakina.

12.000 biztanle dioen tokian, 10.000 biztanle jartzea.

Zioak: Egokitzea Toki Administrazioiko beste zenbait gaitarako erabiltzen den diren neurgailuei.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 3. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina.

“4. Merkataritza-gune handiak eraiki, instalatu eta irekitzeko, indarrean den ordenamendu juridikoan ezarritako administrazio-baimen guztiak eduki beharko dira; beraz, merkataritzako bera-riazko lizentziak ezin ditu haiek ordeztu”.

Zioak: Zehaztea merkataritzako lizentziak ez dituela obretarako, jarduera sailkatuetarako eta abarretarako administrazio baimenak ordeztzen.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 4. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko emendakina

4. artikuluko testuaren ordeztu, ondoko testua jartzea:

“4. artikulua. Hirigintza baldintzak.

1. Merkataritza-gune handiak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkaturiko lurzoruetan ezarri ahal izanen dira, non-eta azken horiek ez dauden babes-araubide bereziren batean, erabilerekin edo eraldaketarekin bateraezina dena, antolamendu-planei edo sektoreko legediari jarraituz.

2. Plangintza daukaten udalerrietan, merkataritza-gune handien ezarpenak aurreikusita egon beharko du edo bateragarria izan beharko du planean aurreikusitako lurzoruaren sailkapen, kalifikazio eta erabileraren eta eraikuntza araubidearen alorreko zehaztapenekin

Bestela, aldi berean izapidatuko da udal plangintzaren aldaketa eta haiek garatzeko planak eta gainerako tresnak; dagokionak onetsiko ditu haiek, antolamendu juridikoak ezarritakoari jarraituz.

3. Merkataritza-gune handiak ezartzeko plangintzarik ez duten udaletan, Udalez gaindiko Proiektu Sektorial bat izapidatu eta onetsi beharko dute, hirigintzari buruzko legedian xedatuari jarraituz.”

Zioak: Hirigintza arloko baldintzak argitzen dira; merkataritza-gune handiak ezar daitezkeen lurzoru motak ezartzen dira, baita hori bideratzen dituen plangintza-tresna guztiak era.

#### 5. EMENDAKINA

##### «MARTIN LANDA MARCO»

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

4.2 artikulua aldatzeko emendakina; hona proposatzen den idazkera:

“4.2 artikulua. Hiru lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian nahitaezkoa izanen da Udal Plangintzan edo horren aldarazpen batean aurreikuspena egitea; espediente horren onespenerako ahalmena Udalarri dagokio, salbu Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala bada”

Zioak: Udalen autonomia gehiago errespetatzea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe.

### 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 6. EMENDAKINA

##### «MARTIN LANDA MARCO»

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

5. artikuluko 2. puntua kentzeko emendakina.

Zioak: Bi prozesu dira; beraz, ez da beharrezkoa legeak ezer ohartaraztea.

## 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 7. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatu eta haren ordeztu ondoko testua jartzeko emendakina:

“7. artikulua. Hirigintzako tresnaren behin betiko onespena.

1. Merkataritza-gune handiaren ezarpena arautuko duen tresnaren behin betiko onespenean, eskumenak dituen administrazio organoak aztertuko du hura indarra duen lege-esparruaren eta lurralde-antolamenduari buruzko tresnen arabera den, bai eta ondokoen arteko koordinazioa ere: batetik, udalaren ikuspuntutik eskaintako konponbideak, eta bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste Administrazio Publiko batzuen eskumenak.

Udalez gaindiko Proiektu Sektorialean, 7. artikulua udal plangintzarako ezarritakoez gainera, ondoko irizpideak ere hartuko dira aintzat:

a) Kokatuko den lurzoru horren araubide juridikoarekin bat, lur horien egokitasuna, kasu honetan hirigintza eta ingurugiroaren ikuspegitik.

b) Bide sarearekiko erlazioa, gurpilezko trafikaren fluxuen erlazio zuzena bermatuz, betiere fluxu horien eragina nabarmenduko duten bideen ezaugarrien arabera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ezarritako irizpideekin bat -haren eskumeneko bide-sarearen kasuan- eta bide-sarea ezarriko den Udalaren irizpideekin bat -ukitutako bide-sarea hiri-lurzoruan dagoenean.

c) Ur azpiegitura eta hornikuntza eta elektrazien hornikuntza merkataritza-gunearen beharrezan egokitzea.

d) Merkataritza-gunea hartzen duen azalera osoaren eta barneko antolamenduen arteko erlazio zuzena ondoko alderdi hauetan: hertsiki merkataritzako jardueretarako den azalera eraikia, zerbitzuak eta instalazioak, aparkalekuak eta gune askeak, herri-lagapenak eta zuzkiduretakoak.

e) Eraikuntzako elementuen eta urbanizazioaren diseinu arkitektoniko egokia, kokatu den inguruko hiriaren eta paisajearen ezaugarriak kon-

tuatu hartuz, eta beti eraikinak izaera adierazgarria eta berezia izan behar duela.”

Zioak: Eskumenak indarreko hirigintza-legediari egokitzea.

### 8. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

7.1 artikulua zenbait hitz kentzeko emendakina.

Hona kentzea proposatzen diren hitzak: “eta egokitasuna”.

Gainerakoak berdin dirau.

Zioak: Arazo asko sortzea eta interpretazio ezberdinak ekar ditzakeen alderdi subjektibo bat kentzea. (Estatuko legearen 3, 4 eta 5. artikulua)

## 8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 9. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Haren edukia 7. artikuluari aurkeztutako emendakinean bildu da, sistematika hobea eta koherenteagoa erabiliz.

### 10. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

8.c) artikuluan ondoko testua kentzeko emendakina:

“Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren irizpideekin bat”.

Zioak: Gobernuaren lanerako arau gisa har daiteke, baina ez da beharrezkoa hori legean sartzea.



## 9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 11. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluan ondoko testua gehitzeko emendakina:

“eta sare eta gainerako azpiegituren hobetzetik egoki jotzen den ehuneko.”

Zioak: Betebeharrak zabaltzea, haien artean sartuz azpiegituren hobetzeak ekartzen duen kostuaren zati bat.

## 11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 12. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko emendakina; honela geldituko da idatzirik:

11. artikulua. “Nafarroako toki entitateek koordinatuko dute jarduera sailkatu, obra, irekiera, lehen atzemate edo merkataritza-gune handi baten instalazio zabalkuntza edo aldarazpenerako eskatzen ahal diren beste edozein lizentziaren ematea...”

(Hortik aurrera berdin)

Zioak: Toki Administrazioarekin tratamendu egokia eta errespetuzkoa izatea.

## 12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 13. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12.2 artikuluari ondoko testua gehitzeko emendakina, c) idaztiari, alegia:

“bai eta Nafarroako Ekonomi eta Gizarte afaren Kontseiluko kideak diren sindikatuena ere”

Zioak: Gizarte interesak defendatzen dituzten sindikatuei ere informazioa emateko aukera ematea.

### 14. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

12.3 artikulua aldatzeko emendakina; “sei hilabeteko epea” esaten duen tokian, “hiru hilabeteko epea” jartzea proposatzen da. Gainerakoak berdin dirau.

Zioak: Epe hori arrazoizkoagoa da.

### 15. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 3. idazkia aldatzeko emendakina; aurreikusitako sei hilabeteko epearen ordeztu, hiru hilabeteko epea jartzea.

Zioak: Administrazio prozeduran ezarritako epe orokorrari egokitzea.

## 13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 16. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko emendakina.

b) idazkian zehazten diren dokumentu guztiak kentzea proposatzen da, hasi “Baldin eta eskatzailea” eta “zuzenbidean onartuta dauden eretik edozeinetan benetakotu beharko dute.” hitzetara arte.

c) idazkiaren ordeztu, ondoko testua jartzea:

“Egin nahi den jarduera horri buruzko memoria bidezkozailea; memoria horretan ondoko hauek azalduko dira: establezimendu mota, merkataritza-formula; azalera eta erabilerei buruzko koardoa; merkataritza-unitate ezberdinak integartzeko era; merkataritza-gunea ustiatuko duen merkataritzako operadorea eta horren ikurra; langileen kopurua, kategoria eta araubidea, eta aurreikusi den inbertsioa, bidezko azterlan ekonomiko-finantzarioarekin”.

e) idazatiaren orde, ondoko testua jartzea:

“Ezartzeko egutegia, inbertsioa eta lan okupazioa zein epetan burutuko diren adieraziko duena.”

Zioak: Erregelamendu izaerako xehetasunak kentzea, kreditatu beharreko kontzeptuei buruzko adierazpenak utzita.

### 15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 17. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko emendakina. Horren orde ondokoa jartzea proposatzen da:

“15. artikulua. Merkataritzako lizentzia berezia emateko irizpideak.

Foru Lege honen 3. artikuluan araupetu den merkataritzako lizentzia berezia emateko ondoko irizpideei jarraituko zaie:

a) Plangintzak zehaztutako jardueraren hirigintza-egokitzapena, 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Kokaleku berriaren eragin-eremuan merkataritza-ekipamendu egokiaren zuzkidurak. Lurralde esparru batek merkataritzako ekipamendu egokia duela ulertuko da baldin eta eskualdeko biztanleriari, edo, hala denean, epe ertainerako aurreikusi den biztanleari kalitate, aniztasun, zerbitzu, prezio eta ordutegi baldintza egokietan artikuluen eskaintza bermatzen bazaio, egungo egoerarekin eta txikizkako merkatuaren garapen eta eguneratze joerekin bat.

c) Eskualdeko merkataritzako egituraren duen eragina; hori neurtzeko kontuan hartuko da merkataritza-gune handi berri bat zabaltzeak zer ekarriko dion lehiakortasun askeari eta aldeko denda txikietan, lehendik daudenetan, izanen dituen eragin negatiboak.

d) Proiektuak nola lagunduko duen zuzkidura eta zerbitzu kolektiboak eta eragin alde horretan dauden zerbitzu-eremuak berpizteko.”

Zioak: Erabili behar diren balorazio-irizpideak zehaztu eta objetibatu nahi dira, haiek indarra duen lege-esparruari egokitzeko eta zuhurtziarakotasuna dela-eta gehiegikeriak saihesteko.

#### 18. EMENDAKINA

##### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

15.2.a) artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Alderdi subjeto bat kentzea; beste aldetik, instalatu nahi diren enpresek egindako merkatu-azterketak izanen dira jarri ala ez jarri erabakitzeke balioko dutenak.

### 16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 19. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16, 17 eta 18. artikulua eta xedapen gehigarria kentzeko emendakina

Zioak: Edozein lurralde-ereduren zehaztapena lurralde antolamenduaren tresnei eta hirigintza plangintzari dagokie, baldin eta uste bada antolamendu horri dagokiola erkidego baten politika sektorialak lurraldean inplementatzea; horrela lekuan adierazten dira politika sektorial ezberdinak eta lurraldearen alderdi ezberdinen antolamendua. Ez da bidezkoa horren sektoriala eta gutxienekoa den lurralde-eredua ezartzea, plangintza orokorretik eta haren tresnetatik at.

Horrenbestez, ez da bidezkoa ez haren idazkera (xedapen gehigarria), ez haren onespina (17. artikulua), ez haren indarraldia eta berrikuspina (18. artikulua), ez eta lizentzien etetea ere (19. artikulua eta 1. xedapen iragankorra).

#### 20. EMENDAKINA

##### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

16.a) artikulutik “eskura” hitza kentzea.

Zioak: Azterlanari izaera orokorragoa ematea. Etengabe zabaltzen eta ixten dira modu guztietako dendak; beraz, ez da bidezkoa.

## 17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 21. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 1. idazatia aldatzeko emendakina

17. artikuluko 1. idazatiari ondoko testua gehitzeko emendakina:

“baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarena, zuzenean ukitutako udal eta kontzejue-na eta Nafarroako Ekonomi eta Gizarte aferetarako Kontseiluan dauden sindikatuena ere”.

Zioak: Lurralde ereduak ez ditu soilik ukitzen Lurralde Antolamendu Batzordea eta Merkataritza Ganbera; toki entitateak, kontsumitzaileen elkarteak eta sindikatuak ere ukitzen ditu.

### 22. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

17.1 artikulutik “Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak” hitzak kentzea.

Zioak: Ez dugu uste egokia denik Ganbara horrek derrigorrezko txostena egiteko beharra sortzea.

### 23. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina

2. idazati berri bat gehitzea, oraingo ordena aldatuta. Ondokoa esan beharko du:

“2. Merkataritza-gune handien lurralde ereduak jendaurreko informazioko izapidea egin beharko du hilabeteko epea, gutxienez, haren proposamenei buruzko alegazioak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurreko informazioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean kaleratzen diren bi egunkaritan argitaratuko dira.

Alegazioen ondorioz, ereduaren zehaztapen-tan funtsezko aldaketarik sartzen bada, jendaurreko epe berri bat zabalduko da, aurrekoaren epe

eta publikotasun baldintza berdinak bete beharko dituen.

Zioak: Lurraldearen plangintzaren eta merkataritza-jardueren arloetan ereduak sortzen dituen ondorioak direla-eta, ezinbestekoa da jendaurreko informaziorako eta parte hartzeko izapide bat izatea, plangintza guztietan ohikoa den bezala.

### 24. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. idazatia aldatzeko emendakina

Proposatzen duguna da 2. idazatik bigarren lerroaldea -“Helburua hori dela...” hasten denak- eta 3. puntuarekin batera azken idazati bezala sartzea.

Zioak: Ezarritako merkataritza defendatzea helburu duen antolamendu baten jarduketaren ezaugarria den gremialismoa gainditzeko, azterlanak teknikari independentei edo Administrazioaren beraren teknikariei enkargatu behar zaizkie.

### 25. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 3. idazatiari ondoko lerroaldea gehitzeko emendakina:

“Behin betiko onespenerari buruzko erabakiak jendaurreko informazioko izapidean egindako alegazio eta proposamenak bildu beharko ditu, eta haiek aurkeztu dituzten guztiei jakinaraziko zaie.”

Zioak: Manuaren eta prozeduraren sistematika zaintzeko eta prozedura horretan parte hartu dutenei informazio zuzena emateko.

## 18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAS

### 26. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 2. idazatiari a) idazati bat gehitzeko emendakina; proiektuaren ordena aldatuko da horretarako. Hona haren testua:

“a) Merkataritza-gune handien lurralde ereduaren aurreikuspenetan eragina duten lurralde plan-gintzetako zehaztapenak.”

Zioak: Beste alderdi batzuen aldean lurraldearen antolamenduak daukan lehentasuna adieraztea.

## 19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 27. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

19. artikuluko 1, 2, 3 eta 4. puntuak kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dugu uste bidezkoa denik etete hori ezartzea.

### 28. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua eta lehen xedapen iragankorra kentzeko emendakina

Zioak: Justifikaziorik ez du, eta 7/1996 legearen funtsa diren oinarritzko kontzeptuen aurka dago.

## 20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 29. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko emendakina.

Haren ordeztatik ondoko testua jartzea proposatzen da:

“Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak merkataritza-jardueren kautelazko etetea burutu dezake, establezimendu handien berezko ezaugarriak bete bai baina merkataritzako berariazko lizentzia eskuratu ez duten edo eskatu ez duten lokaletan.

Kautelazko neurri hori hartu baino lehen, hasiera emanen zaio administrazio prozedura

bati, zeinean entzun eginen baitzaio jardueraren titularrari eta haren zerbitzuan ari diren langileen ordezkariari.”

Zioak: Neurriaren kautelazko izaera argitzea; neurri hori gauzatu baino lehen, interesatuei entzuteko bermea eman beharko da.

## XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 30. EMENDAKINA

#### «MARTIN LANDA MARCO»

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra kentzeko emendakina

Zioak: Aurkezturiko beste emendakin batzuekin bat etortzea.

### 31. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko emendakina. Haren ordeztatik ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

“Foru Lege hau indarrean sartzen denean, abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean ezarri diren jarduera sailkatuen kontrolerako lizentziaren eskabidea, edo merkataritzako berariazko lizentzia -Txikizkako merkataritza antolatzeari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen edo azalera handiko instalazioen ezarpenari buruzko maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretuaren babesean eskatu duten pertsona fisiko eta juridikoek haien izapidaketa jarraitzen ahalko dute aipatu legeei jarraituz, edo bestela Foru Lege honek egindako aurreikuspenei lotu hilabeteko epean. Ez lehen xedapen iragankorrean ezarritakoak, ez merkataritza-gune handien lurralde eredutik ondorioztatzen diren zehaztapenek eta araubideak, ez dute eraginik izanen prozedura horietan.”

Zioak: Atzera-eraginezintasuneko erreserba egin nahi da, lizentziak araupetzen dituzten xedapenen babesean izapidatzen ari direnen egoera aintzat hartzeko.

**32. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko emendakina. Haren ordeztu, ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

“Foru Lege hau indarrean sartzen denean, aurreko xedapenetako edozeinen babesean baimena eskuratu duten pertsona fisiko edo juridikoek ez dute nahitaez merkataritzako lizentzia berezia eskatu behar”.

Zioak: Arauen segurtasun juridikoa eta atzera-eraginezintasuna bermatzea.

**BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAIL-  
LEARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA****33. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen indargabetzailea kentzeko emendakina.

Hura kentzea proposatzen dugu; beraz, lehen xedapen indargabetzailea xedapen indargabetzaile “bakarra” izanen da.

Zioak: Aurreko xedapenenaren indargabetze orokorrak hura ere ukitzen duelako.

**AZKEN XEDAPEN BIGARRENARI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINA****34. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako bigarrena aldatzeko emendakina

Haren ordeztu, ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

“Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitun eguneko epean jarriko da indarrean.”

Zioak: Legeak indarrean sartzeari buruzko araubide orokorrari egokitzeko.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****35. EMENDAKINA****«MARTIN LANDA MARCO»****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko laugarren idazatian ondoko esaldia kentzea:

“hala merkataritzaren ikuspegitik nola lurraldearen eta hirigintzaren ikuspegitik.”

Zioak: Aurkeztutako beste emendakin batzuekin bat etortzea.

**36. EMENDAKINA****«MARTIN LANDA MARCO»****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko azken aurreko lerroaldean ondoko tartea kentzeko emendakina:

“eta horretan egin diren aurreikuspenak bazter utzita...” hitzetatik hasi eta bukaera bitartean.

Zioak: Aurkeztutako beste emendakin batzuekin bat etortzea.

## **Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua**

### *PROIEKTUA ERRETIRATU EGIN DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Foru Diputazioak, 1999ko otsailaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua erretiratu egin du, Biltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoaren babesean. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Merkataritza-gune handien ezarpena araupetzen duen Foru Lege proiektua erretiratu egin dutela jakitun dagoela adieraztea.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Enpresarioei, komunikabideei eta kazetariei egindako mehatxuak gaitzes- teko adierazpen politikoa**

### *BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA*

Bozeramaileen Batzarrak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Berrikitik jakin izan denez, Nafarroako enpresarioen aurkako mehatxu gehiago izan dira, eta, horietan, dirua ematea ere exijitu omen diete. Beste alde batetik, ETA erakunde terroristak, bere azken komunikatuan, komunikabideen kontra bideratu ditu salaketa eta mehatxuak, eta ideiak libreki adieraztearen aurkako beste mehatxu batzuk ere egin ditu. Horiek horrela,

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Nafarroako enpresarioen aurkako mehatxuak, dirua ematea exijitu baitiete; aldi berean, elkartasuna ere adierazten die, eta baita Nafarroako erakunde demokratikoen eta gizarte osoak haien lanean konfidantza dutela ere; azkenik, animatu egiten ditu jardunean jarrai dezaten, terroristen txantaiari men egin gabe.

Beste alde batetik, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu komunikabideen eta zuzen eragindako pertsonen aurkako mehatxuak; izan ere, ideiak azaltzeko askatasuna hertsatu eta murriztu egiten baitute mehatxuok, eta askatasun hori elkarbizitza demokratikoaren funtsezko oinarri da.

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du herritarren segurtasuna arriskuan jartzen duen bortxakeria; izan ere, herritarrek askatasunean nahi dute lanbidean aritu, terroristen mehatxurik gabe. Era berean, edozein eraso edo bortxaren aurka dagoela adierazten du. Horrelakoek traba besterik ez baitiote egiten bakegintzari, zeina elkarrizketak eta legezketasunaren errespetuak gidatuta baitago, eta herriak askatasunean bizitzeko duen borondateari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 9an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Nafarroan bide biologikoen sarea eratzeko oinarrizko azterlanari buruzko galdera**

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroan bide biologikoen sarea eratzeko oinarrizko azterlanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Ingurugiro zuzendari nagusiak emandako 720/1998 Ebazpenaren bidez, Nafarroan bide biologikoen sarea eratzeko oinarrizko azterlana kontratatzeke lizitazio-deia onetsi zuen.

1998ko abenduaren 31n bukatu zen aipatu azterlana egiteko epea.

Nafarroan bide biologikoen sarea eratzeko oinarrizko azterlana dela-eta, hurrengo galderari erantzutea nahi dut:

1.- Zer enpresa, entitate, elkarte edo erakunderi esleitu zaio aipatu azterlana egiteko lehiaketa (prozedura irekia)? Zenbat jo zuen aipatu azterlanaren esleipen-prezioak?

2.- Zer ondorio atera ditu aipatu azterlanak Nafarroan bide biologikoen sarea eratzea dela-eta? Zenbat bide aztertu eta proposatu dira? Zer udalerrri ukitzen du horietako bakoitzak?

3.- Nafarroako Gobernuak ekintza konkreturik aurreikusi al du 1999rako, aipatu oinarrizko azterlanaren ondorioek markatu duten ildotik? Nafarroako Gobernuak ba al du aipatzen ari garen azterlanaren antzeko edo osagarriren bat kontratatu edo proposatzeko asmorik?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 22an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas



## Abelbideen gaineko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak abelbideen gaineko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997.aren bukaera aldera onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Abelbideei buruzko Foru Legea. Lege horrek, arau-multzo bakarrean bildu ditu gure Komunitateko abelbideak zaindu eta erabiltzeko araubide bereziak; izaera bakarrekoa, diogun bezala, baina baita integritzailea ere, "ardibideak" deritzenen berezitasun administratiboak eta egungo eskakizunak uztartu ditu eta.

Nafarroako Parlamentuak, Legea onetsi zutenean, arau-tresna egokia eman zion Administrazioari gure betiko abelbide, zeharbide, pasabide eta adarrak gorde, zaindu eta behar bezala eta egoki erabiltzen direla bermatzeko.

Nafarroako Gobernuak abelbideei buruz egin dituen jarduketak direla-eta, hurrengo galderari erantzuteko eskatzen dut:

1.- Zer jarduketa garatu ditu (bukatuak edo martxan) Nafarroako Gobernuak abelbideen antolamendu eta erabilerari buruzkoan, 19/1997 Foru Legearen arabera?

2.- Zer jarduketa bukatu du Nafarroako Gobernuak, edo zer jarduketa darabil abelbideen osotasuna defendatzeko? Izan ere, indarreko legediak eskubide eta betebehartzat hartu du abelbideen barrukotzat jo daitezkeen lurren egoera aztertzerena.

3.- Zer jarduketa bukatu du Nafarroako Gobernuak, edo zer jarduketa darabil abelbideak sailkatu, mugatu, zedarritu eta desafektatzea eta, behar denean, handitu eta berrezartzeari buruz?

4.- 19/1997 Foru Legeak ematen dizkion ahalmenen baitan, zer jarduketa bukatu du Nafarroako Gobernuak, edo zer jarduketa darabil abelbideen erabilera publikoa bermatzeko, dela abereak eramateko erabiltzen direnean, dela beste jarduera bateragarri edo osagarrietarako erabiltzen direnean?

5.- Zer jarduketa bukatu du Nafarroako Gobernuak, edo zer jarduketa darabil abelbideak eta abelbideei zuzenean loturiko gainerako elementuak, ingurugiroaren edo kulturaren ikuspegitik baliosak direnak, egoki mantentzen direla bermatzeko, beharrezko diren babes eta errestaurazio neurriak hartuz? Nafarroako Gobernuak bestelako ekintzarik burutu al du edo burutzen ari da Nafarroako abelbideak zaindu, kontserbatu eta hobetzeko?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 25ean

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

## Abelbideak sailkatu, mugatu eta zedarritzeko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak abelbideak sailkatu, mugatu eta zedarritzeko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997.aren bukaera aldera onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Abelbideei buruzko Foru Legea. Lege horren II. kapituluaz azaltzen dira abelbideak sailkatu, mugatu eta zedarritzeko egintzak.

Hartara, sailkapena da abelbide bakoitzaren izaera, zabalera, trazadura eta gainerako ezaugarri fisiko orokorrak zehazteko administrazio egintza da, deklarazio izaera duena. Mugaketa abelbideen mugak zehazteko administrazio egintza da, sailkapenaren egintzan finkatutakoari jarraikiz. Eta zedarritzea administrazio prozedura bat da, abelbideen mugak finkatu eta muga horiek luraren gainean betiko adierazteko xedea duena.

Abelbideei buruzko Lege horren arabera ere, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagozkio abelbideen egoera eta titulartasunari, horien

mugaketari eta desafektazioari buruzko ikerketak egiteko ahalmen eta eskugoak. Lurzatien berrantolamenduak egiteko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dago. Eta gainerako ahalmen eta eskugoak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio.

Nafarroako abelbideak sailkatu, mugatu eta zedarritzeko jarduketak direla-eta, hurrengo galderari erantzuteko eskatzen dut:

1.- Zer jarduketa garatu ditu edo ari da garatzen Ekonomia Departamentua, Nafarroako Abelbideei buruzko 19/1997 Foru Legeak ematen dizkion ahalmen eta eskugoak zertzeko?

2.- Zer jarduketa garatu ditu edo ari da garatzen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua, Nafarroako Abelbideei buruzko 19/1997 Foru Legeak ematen dizkion ahalmen eta eskugoak zertzeko?

3.- Zer jarduketa garatu ditu edo ari da garatzen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, Nafarroako Abelbideei buruzko 19/1997 Foru Legeak ezarri duena betetzeko?

4.- Nafarroako Abelbideei buruzko 19/1997 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriak dioena betez, zer jarduketa garatu ditu edo ari da garatzen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua Nafarroako abelbideen azterketa orokorra eta sailkapena egiteko, egun dituzten erabilera eta ezaugarrien arabera? (Sailkapen horretan hiru talde eginen dira: abeltzaintzarako interesa duten abelbideak, interes naturalekoak eta aisialdirako interesekoak)

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 25ean

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

## Nekazaritza-lurren prezioek 1998an izan duten bilakaerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak nekazaritza-lurren prezioek 1998an izan duten bilakaerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza-lurren prezioei buruzko datuen eta horien denboran zeharko garapenaren berri izatea funtsezko elementu dira nekazaritza politika aztertzeo, "lurraren merkatu" deritzanaren alde guztiekin duen harremana kontuan hartuz gero.

Maila orokorragoan, gainera, nekazaritza-lurren prezioei buruzko estatistikek bide ematen dute nekazaritzaren eta landa-ingurunearen egoera eta bilakaera ezagutzeko; izan ere, nekazaritza-ustiapenerako lurren eskarian isla baitaitezke horiek, nekazaritzaren epe ertaineko perspektibak marrazteko garaian.

1997.aren bukaera aldera, Nekazaritza Ministerioan eskuragarri ziren datuek erakusten zuteenez, gure Komunitateko nekazaritza-lurren batez

besteko prezio orokorrek %35,26 igo ziren: hektareako 641.000 pezetatik, hektareako 867.000 pezetara. Igoera horrek 1996an gertatu zena sendotu besterik ez du egiten, eta gure Komunitateko nekazaritza-lurren batez besteko prezio orokorrak %50 hazi dira 1996 eta 1997. urteetan.

Nekazaritza-lurren prezioek 1998an izan duten bilakaera dela-eta, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernuo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioak batera lantzen dituzten estatistiketan jasotzen diren laborantza eta aprobetxamenduak kontuan izanda, noraino heldu da nekazaritza-ustiaketarako lurren salmenta-prezioa 1998an?

2.- Nafarroako Gobernuo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak nola baloratzen ditu 1998an zehar gertatu diren laborantza eta aprobetxamenduen prezioen aldaketak, eta batez besteko indize orokorrak? Nola baloratzen du haien bilakaera historikoa? Zer ondorio atera du aipatu Departamentuak aurreko datuei buruz?

3.- Nafarroako Gobernua zertan ari da, edo zer egin nahi du, edo zer egin du aipatu prezioen bilakaera hobetzeko, eta lehentasunekotzat jotako talde, eskualde edo egoeretan lurra eskuratzeko erraztasun gehiago izan dezaten? (Izan ere, nekazaritzara iristeko edo nekazaritzan aritzeko baldintzak hobetzeko lehentasuna ezarri da nekazari gazte, kooperatiba eta abarrentzako...).

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 26an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

## Joan den urteko lan-istripuen kopuruari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak joan den urteko lan-istripuen kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, "Askotariko" Parlamentuko Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako lan-istripu kopuruari buruzko behin-behineko datuek egoera kezkarria erakusten dute. Nafarroa, 1997an, hildakoak eragiten dituen lan-istripuei dagokienez, lehenengo postuetan jarri zen. 1998an ere antzeko datuak izan ziren (hildako bat gutxiago); urte hori ezin izan

zen okerrago hasi, hiru pertsona hil baitziren urtarilean.

Estatistikek adierazten dutenez, ez da nahikoa langile eta enpresaburuen zorrotasuna eskatzea -1996an hasi zen, bereziki, hori egiten, eta horretan ere jarraitu beharko da-; arauak betetzeko disuasio-neurri gehiago ezarri behar dira, gizarte eragileekin adostuak, ahal izanez gero.

Hori guztiagatik, hauxe jakin nahi da:

a) 1998ko abenduaren 31 arteko datuak, lan-istripuei eta horien larritasunari buruz: hildakoak, zauritu larri eta arinak, eta, zerrenda batean, lan-bajarik izan duten ala ez.

b) Zer neurri hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Lan Arriskuei aurrea hartzeari buruzko Foru Legea bete dadin Foru Komunitateko enpresetan.

c) Zer jarduketa abiarazteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak, gizarte eragileekin batera, Nafarroako lan-istripuen kopurua Europako eskualde aurreratuen gisakoa izateko.

Iruñean, 1999ko otsailaren 2an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

## 1998an Gobernuko departamentuetan egin diren aparteko orduetako buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak 1998an Gobernuko departamentuetan egin diren aparteko orduetako buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, "Askotariko" Parlamentuko Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aparteko orduak gehitzen ari dira, ordu horiek gutxitzeko sindikatuen ahalegina gorabehera; eta hori bai Estatuan eta bai Nafarroan.

Nafarroa osoan, ahal den heinean aparteko orduen kopurua gutxitzeko, eta horrek gure erki-

degoan lanpostu gehiago sor ditzan, beharrezkoa da, baita ere, Foru Administrazioak berak ahaleginak egitea; Administrazioak ahalegindu egin behar du kontratazio berriz ordezkari daitezkeen aparteko ordu guztiak gutxitzen, edo Foru Administrazioaren beraren barreneko eraginkortasun eta ekonomiak hobetzen.

Hori guztiagatik, hauxe jakin nahi da:

Zein izan den, departamentu eta mailaka, 1998 urtean zehar egin diren aparteko ordu kopurua; zein izan den urte horretan, aparteko orduak egiteagatik guztira ordaindutako diru kopurua; eta zer plan dituen Gobernuak 1996tik hona gertatzen ari den aparteko ordu kopuruaren etengabeko gehikuntza ekiditeko.

Iruñean, 1999ko urtarrilaen 29an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

**Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko apirilean bidali dituen Erabakiaren eta Ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko apirilean Nafarroko Parlamentura bidali ziren Erabakiaren eta Ebazpenen bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezkoatasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu Erabakiari eta Ebazpenei buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

Nafarroako Gobernuak, 1998ko martxoaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eskaria, aurrekontu-aldaketa bat egitea proposatzen duena (zenbatekoa, 850.000 pezeta) Akitaniak, Euskadik eta Nafarroak Txinako Hubei probintzian burutu nahi duten lankidetzaproiektu batean Nafarroak parte har dezan.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 37. artikulua indarrez, Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezko diren kontusailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere. Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

**Lehena.** 1998rako indarra duen Gastuen Aurrekontuan, ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duten aurrekontu-aldaketak egitea:

KARGUA:

– 11610-6092-1341 kontusaila; proiektua, 16003; lerroa, 07800-3; Europako Erkidegoko programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF); zenbatekoa, 850.000 pezeta.

ABONAMENDUA:

– 11610-2269-1341 kontusaila; proiektua, 16003; lerroa, 07695-7; “E.U. Programa E.U.-Txina (L.A.L.); zenbatekoa, 850.000 pezeta.

**Bigarrena.** Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Kanpo Ekintzaren Zerbitzura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara, eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuan den Kontuhartzailetza Delegatura.”

---

“**90/1998 EBAZPENA**, martxoaren 3koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gainerapenen bidezko aurrekontu-aldaketak onesten dituena.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egin duen eskaria 1998rako indarreko Gastuen Aurrekontuan 1997ko ekitaldiaren kitapenean baliogabeturiko kredituen gerakinak gaineratzeko, Ekipo informatikoak kontzeptuari dagozkionak; lerroa, 07860-4; zenbatekoa, 17.047.821 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.**- 1998rako indarreko aurrekontuan gaineratzea 1997ko ekitaldiaren kitapenean balio-gabeturiko kreditu-gerakinak; hain zuzen ere, 21000 proiektuko "Ekipo informatikoak" 12100-6060-6131 kontusailera; lerroa, 08020-2; zenbatekoa, 17.047.821 pezeta.

**Bigarrena.**- 17.047.821 pezetako gainerapen hori finantziatzeko, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaileko dirusarrerara handiagoak erabiliko dira; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"91/1998 EBAZPENA**, martxoaren 3koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako eskaria, "Ikerketarako azpiegitura" kontusaileko 17550-5 lerroan kreditua gehitzeko; zenbatekoa, 4.250.000 pezeta. "FISen dirulaguntzak inbertsioetarako" kontusaileko 37555-2 lerroan izandako dirusarrerara handiagoekin finantziatuko da; zenbatekoa: lehengo bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) letraren arabera, izan ere hor ezartzen baita Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu aldaketa horiek baimentzeko. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarreko aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: "Ikerketarako azpiegitura" izeneko 52280-6059-4127 kontusaila; proiektua, 40001; lerroa, 17550-5; zenbatekoa, 4.250.000 pezeta, Ondoko kontusailean egindako dirusarrerekin finantziatuko da: "FISen dirulaguntzak inbertsioetarako" 52280-7200 kontusaila; proiektua, 40001; lerroa, 37555-2; zenbatekoa: lehengo bera.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"104/1998 EBAZPENA**, martxoaren 5koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Toki Administrazioiko Departamentuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen ondoko kontusailean: "Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzendaria"; lerroa, 92006-5; zenbatekoa, 39.069.653 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara handiagoekin finantziatuko da: "Kohesio fondoak"; lerroa, 36365-1; zenbatekoa: lehengo bera.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 3. puntuko e) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "Ibaien arazketa eta saneamendurako plan zuzendaria" 21300-7600-4411 kontusaila; proiektua, 13001; lerroa, 92006-5; zenbatekoa, 39.069.653 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrerara handiagoen kargura finantziatuko da: "Kohesio fondoak" 21300-7904 kontusaila; proiektua, 13001; lerroa, 36365-1; zenbatekoa: lehengo bera.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Toki Administrazioiko Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 5ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"105/1998 EBAZPENA**, martxoaren 5koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-

gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Langileri Zerbitzuaren eskaria; bertan, kreditu-gehikuntza eskatzen da ondoko kontusailan: "Jubilazio aurreratuarengatik kalteordainak, 259/1998 Foru Dekretua"; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 3.837.942 pezeta. Ondoko kontusailan izandako dirusarrera handiagoekin finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikuluan 1. puntuko i) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailan: "Jubilazio aurreratuarengatik kalteordainak, 259/1998 Foru Dekretua" 04120-1614-3141 kontusaila; proiektua, 20002; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 3.837.942 pezeta. Ondoko kontusailan izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Langileriaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 5ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"109/1998 EBAZPENA,** martxoaren 9koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Estatistika Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du "Estatistika demografiko, sozial eta ingurugirokoak" gastuen kontusailako 07370-2 lerrotik "Praktikaldietako ikasleentzako bekak" kontusailako 07290-0 lerroa; zenbatekoa: 2.220.000 pezeta

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2. artikulua ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak kontseilariak programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998ko gastuen aurrekontuan kreditu transferentzia egitea 15000 proiektuko "Estatistika demografiko, sozial eta ingurugirokoak" 11510-6092-3-5512 kontusailako 07370-2 lerrotik 15000 proiektuko "Praktikaldietako ikasleentzako bekak" 11500-4800-5512 kontusailako 07290-0 lerroa. Zenbateko: 2.220.000 pezeta.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Nafarroako Estatistika Institutua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"122/1998 EBAZPENA,** martxoaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Nafarroako Estatistika Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du "Estatistika demografiko, sozial eta ingurugirokoak" kontusailako 07370-2 lerrotik "Bestelako altzari eta ekipoak" 07310-9 lerroa. Zenbatekoa: 3.000.000 pezeta.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluan 2. atalak haxe xedatu du: "Nafarroako Gobernuak kontseilariak, beraien departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998ko gastuen aurrekontuan kreditu transferentzia egitea 15000 proiektuko "Estatistika demografiko, sozial eta ingurugirokoak" 11510-6092-3-5512 kontusailako 07370-2 lerrotik 15000 proiektuko "Bestelako altzari eta ekipoak" 11500-



6080-5512 kontusaileko 07310-9 lerroa. Zenbatekoa: 3.000.000 pezeta.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Nafarroako Estatistika Institutua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**123/1998 EBAZPENA**, martxoaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gainerapenaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik 1998rako indarreko Gastuen Aurrekontuan 1997ko ekitaldiaren kitapenean balio gabeturiko kredituen gerakinak gaineratzeko egin den eskaria, “Gatz hondakindegia zuzentzea” (2 Helburua, FEDER) izeneko kontusailari buruz. Zenbatekoa: 50.462.237 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997ko ekitaldiaren kitapenean balio gabeturiko gerakina indarra duen 1998ko Gastuen Aurrekontuko ondoko kontusailean gaineratzea: “Kutsadurari aurre egin eta bera zuzentzea” 31100-7709-2-4421 kontusaila; proiektua, 30000; lerroa, 11510-3; zenbatekoa, 50.462.237 pezeta.

**Bigarrena.** Aipatu gaineratzearen finantziazioa ondoko kontusailean dagoen kredituaren kargura: “Hondatutako alderdiak leheneratzea” 31100-6019-4421 kontusaila; proiektua, 30000; lerroa, 90037-4.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura (Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**124/1998 EBAZPENA**, martxoaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sortuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin duen eskaria; bertan, eskatzen da kreditua gehitzea ondoko kontusailean: “IFOP laguntzak”; lerroa, 28372-3; zenbatekoa, 3.676.263 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatzeko da: “FEOGA eta IFOP laguntzak EEEaren erregelamenduen markoan: 866/90 eta 867/90”; lerroa, 38830-1. Zenbatekoa: lehengo bera.

Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izango dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin izaeragatik horien helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerek. Aipatutako artikulua, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena.

Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarra duen Aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: “IFOP laguntzak” 72120-7701-7151 kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 28372-3; zenbatekoa, 3.676.263 pezeta.

Ondoko kontusailean egindako dirusarrera handiagoeekin finantzatzeko da: “FEOGA eta IFOP laguntzak EEEaren erregelamenduen markoan: 866/90 eta 867/90” 72120-7902; lerroa, 38830-1.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**132/1998 EBAZPENA**, martxoaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sor-

kuntzaren bidezko aurrekontu aldaketarako bai-  
mena ematen duena.

Ikusirik Toki Administrazioiko Departamentuak egin duen eskaria; bertan eskatzen da kreditua sortzea ondoko kontusailean: "Toki entitateentzako transferentziak. 5b helburua (FEDER)"; lerroa, 10010-6; zenbatekoa, 2.651.536 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da: "Toki entitateentzako transferentziak. 5b Helburua programa eragilea (FEDER); lerroa, 36360-0.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) letraren arabera, izan ere hor ezartzen baita Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu aldaketa horiek baimentzeko. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarra duen Aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: "Toki entitateentzako transferentziak. 5b helburua (FEDER)" 21330-7600-9122 kontusaila; proiektua, 13000; lerroa, 10010-6; zenbatekoa, 2.651.536 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da: "Toki entitateentzako transferentziak. 5b Helburua programa eragilea (FEDER)" 21330-7901 kontusaila; proiektua, 13000; lerroa, 36360-0.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Toki Administrazioiko Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"135/1998 EBAZPENA,** martxoaren 18koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gainerapenaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egindako eskaria 1998rako indarra duen Gastuen Aurrekontuan 1997ko ekitaldiaren kitapenean baliogabeturiko kredituen gerakinak gaineratzeko, "FEOGA eta IFOP laguntzak" kontusailari dagozkionak; lerroa, 27940-5; zenbatekoa, 100.924.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarreko aurrekontuan gaineratzea 1997ko ekitaldiaren kitapenean baliogabeturiko kreditu-gerakinak; hain zuzen ere ondoko kontusailletara: "FEOGA laguntzak" 72120-7701-7151; proiektua, 60001; lerroa, 28371-5; zenbatekoa, 94.271.399 pezeta; eta "IFOP laguntzak" 72120-7701-7151 kontusaila; proiektua, 60001; lerroa, 28372-3; zenbatekoa, 6.652.601 pezeta.

**Bigarrena.** Gainerapen horiek finantziatzeko ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagok baliatuko dira: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2; zenbatekoa, 100.924.000 pezeta.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"146/1998 EBAZPENA,** martxoaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gainerapenaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak egin duen eskaria 1998rako indarreko Gastuen Aurrekontuan 1997ko ekitaldiaren kitapenean baliogabeturiko kredituen gerakinak gaineratzeko, "Lurra eta eraikinak erostea, Liebherr" kontusailari dagozkionak; lerroa, 28910-9; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarreko aurrekontuan gaineratzea 1997ko ekitaldiaren kitapenean baliogabeturiko kreditu-gerakinak; hain zuzen ere, 10001 proiektuko "Lurra eta eraikinak erostea, Liebherr"

81130-6020-5351 kontusailera; lerroa, 29445-8; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta.

**Bigarrena.** Gainerapen hori gastuen ondoko kontusaileko kreditu baliagarrien kargura finantziatuko da: 10001 proiektuko "Inbertsioak industri azpigiturretan" 81130-6015-5351 kontusaila; lerroa, 90094-3; zenbatekoa: lehengo bera.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"152/1998 EBAZPENA,** martxoaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditugehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintza eta Ordezkaritza Institutuzionalaren Zerbitzuak ondoko izen amankomuna duten gastuen kontusailetan kreditua gehitzeko: "Enplegu eta Adapt ekinbideen proiektuetako ekintzak bukatzea, 94-97 programazioaren konpromisoak (E.G.F.)"; lerroak: 07730-9, 07770-8, 07780-5; zenbatekoak: 9.204.597 pezeta, 4.446.219 pezeta eta 114.727.443 pezeta, hurrenez hurren; ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2; guztizko zenbatekoa: 128.378.259 pezeta.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 2. puntuko c) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehen.** 1998rako gastuen Aurrekontuan kreditugehikuntza egitea gastuen ondoko kontusailetan:

Kodeak	Izena	Pezetak
11610-4400-1341 16003 proiektua 07730-9 lerroa	"Enplegu eta Adapt ekinbideen proiektuetako ekintzak bukatzea, 94-97 programazioaren konpromisoak (E.G.F.)"	9.204.597

11610-4701-1341 16003 proiektua 07770-8 lerroa	"Enplegu eta Adapt ekinbideen proiektuetako ekintzak bukatzea, 94-97 programazioaren konpromisoak (E.G.F.)"	4.446.219
--	---	-----------

11610-4810-1341 16003 proiektua 07780-5 lerroa	"Enplegu eta Adapt ekinbideen proiektuetako ekintzak bukatzea, 94-97 programazioaren konpromisoak (E.G.F.)"	114.727.443
--	---	-------------

Guztira		128.378.259
---------	--	-------------

Ondoko kontusaileko dirusarrera handiagoen kargura finantziatuko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintzaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

**"153/1998 EBAZPENA,** martxoaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketarako baimena ematen duena.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu-sorkuntza eskatu du ondoko kontusailean: "Botikak zaintzeko gastuak"; lerroa, 18480-6; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta; ondoko kontusailean izandako dirusarrekerekin finantziatuko da: "Botikak zaintzeko Ituna"; lerroa, 37615-0; zenbatekoa: lehengo bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehen.** 1998rako indarra duen Aurrekontuan kreditu sorkuntza egitea gastuen ondoko kontusailean: "Botikak zaintzeko gastuak" 52230-2269-4121 kontusaila; proiektua, 42000; lerroa, 18480-6; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean egindako dirusarrekerekin finantziatuko da: "Botikak zaintzeko Ituna" 52230-4000 kontusaila; proiektua, 42000; lerroa, 37615-0; zenbatekoa: lehengo bera.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**154/1998 EBAZPENA**, martxoaren 26koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak ondoko kontusailean kreditua sortzeko egin duen eskaria: “Kapital-transferentziak Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko”; lerroa, 29975-1; zenbatekoa, 44.100.000 pezeta. Estatu-ko Administrazioak Pyme ekinbideen enpresa-garapenerako ondoko kontusailean emaniko diru-sarrerekin finantziatuko da: “Enpresa txiki eta ertainen Politikaren Zuzendaritzaren transferentzia, Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko”; lerroa, 39205-8; zenbatekoa: lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orriaren kredituak sortu ahal izango dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin izaeragatik horien helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerek. Aipatutako artikulua, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena. Aurrekoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998rako indarra duen Aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: “Kapital-transferentziak Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko” 81110-7701-5424 kontusaila; proiektua, 30002; lerroa, 29975-1; zenbatekoa, 44.100.000 pezeta. Estatu-ko Administrazioak Pyme ekinbideen enpresa-garapenerako ondoko kontusailean emaniko diru-sarrerekin finantziatuko da: “Enpresa txiki eta ertainen Politikaren Zuzendaritzaren transferentzia, Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko”; lerroa, 39205-8; zenbatekoa: lehengo bera.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**159/1998 EBAZPENA**, martxoaren 27koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Departamentuak kreditu-transferentzia eskatu du 20000 proiektuko “Ekipo informatikoak” kontusaileko 24670-4 lerrotik 00000 proiektuko “Material informatikoa” kontusaileko 23950-3 lerroa. Zenbatekoa: 1.200.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998ko gastuen aurrekontuan kreditu transferentzia egitea 20000 proiektuko “Ekipo informatikoak” 61100-6060-5134 kontusaileko 24670-4 lerrotik 00000 proiektuko “Material informatikoa” 60100-6060-5111 kontusaileko 23950-3 lerroa. Zenbatekoa: 1.200.000 pezeta.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailtza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**EBAZPENA 163/1998**, martxoaren 30ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barneko Laguntza Juridiko eta Administrazioaren Zerbitzuak eginda-

ko eskaria; haren bidez kreditu-gehikuntza eskatzen da ondoko kontusailean: izena, "Dirulaguntzak"; lerroa, 04230-0; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoekin finantzatuko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 1. puntuko n) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

#### EBATZI DUT:

**Lehena.** 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "Dirulaguntzak" 02400-4809-2211 kontusaila; proiektua, 50002; lerroa, 04230-0; zenbatekoa: 1.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatuko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

**Bigarrena.** Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Barneko Laguntza Juridiko eta Administrazioaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko martxoaren 30ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

#### KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuak Ekonomi Zuzendari Nagusiaren eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren zenbait ebazpen eta foru aginduk eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo apirilean igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-gehikuntza, kreditu-transferentzia, kreditu-sorkuntza, kreditu-gaikuntza edo kreditu-gainerapen dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin, bai eta 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. eta 37. artikuluetan ere.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde.

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **20/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 20/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jartzea, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko ahalmena.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **20/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatutako Ekonomi Hitzarmenaren 27. artikulua ezartzen duenaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenean Nafarroak aplikatuko ditu Estatuaren lurraldean unean-unean indarra duten oinarriko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak.

Bestalde, indarra duen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari, Ekonomi Hitzarmena Zeharkako Ezarpenaren erregimen berriari Egokitzeko Akordioan ezarritakoa bete

ahal izateko beharrezkoak diren arauak eman ditzan. Akordio horren aipamena ulertu behar da Ekonomi Hitzarmen berriari egina bezala horrek indarra hartu eta gero, zeinek espreski indarririk gabe uzten baitu aipatu egokitzapena onetsi zuen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen arrunta arautzen duen Legeak aldaketa batzuk izan ditu honako arloetan: zergari lotu gabeko eragiketak (portu eta aireportuetako zerbitzuak eta kontzesio administratiboak), barneko eragiketako salbuespenak (kirola edo gorputz heziketa egiten dutenei egindako zerbitzuak eta egindako gizarte laguntzako zerbitzuak, laguntza horiei garapenerako lankidetzat atxikiz) eta zerga tasa txikiagoak (nekazaritza, oihangintza edo abeltzaintzan erabiltzen ahal diren ondasunak entregatzea).

Bestalde, erabilpen turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga araei buruzko abenduaren 15eko 42/1998 Legeak esparru horretan ematen diren zerbitzu batzuei 100eko 7ko tasa murriztua aplikatzea aurreikusi du.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da, aipatu xedapen gehigarriaren bigarren lerroaldean aurreikusitakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behinekoz indarra izanen duten arauak Foru Dekretu bidez ematea, harik eta Parlamentuak behin betikoz onesten dituen arte. Horiek onetsi eta hamar eguneko epean Parlamentura igorri behar dira.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi urtarrilaren hogeita bosteko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.

DEKRETATU DUT:

**1. artikulua.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea-

ren honako artikuluoak honela idatzirik geldituko dira:

Bat.-7.8. artikulua, hirugarren leteraldea, d) letra.

“d) Portu eta aireportuetako zerbitzuak eta trenbideetako azpiegituren ustiapenak, ondorio horietarako biltzen direlarik hurrengo zergari ez atxikitzeak ondoko 9gn idazatian salbuetsitako kontzesio eta baimenak.”

Bi.-7.9. artikulua.

“9garren. Administrazio prestazio eta baimeak, ondokoak izan ezik:

a) Portuetako jabari publikoa erabiltzeko eskubidea lagatzea helburu dutenak.

b) Aireportuetako higiezin eta instalazioak lagatzea helburu dutenak.

c) Trenbideetako azpiegiturak erabiltzeko eskubidea lagatzea helburu dutenak.

d) Portuen eremuan jarduera komertzialak edo industrialak garatzeko eta jendeari zerbitzuak emateko baimenak.”

Hiru.-17.1.9 artikulua.

“9garrena. Kirola edo gorputz hezkuntza egiten duten pertsona fisikoei emandako zerbitzuak, edozein izanik ere prestazio hori hartzen duen pertsona edo entitatea, beti ere aipatu zerbitzu horiek kirola edo gorputz hezkuntza egitearekin zuzeneko zerikusia badute eta pertsona edo entitate hauek ematen badituzte:

a) Zuzenbide publikoko entitateak.

b) Kirol Federazioak.

c) Espainiako Batzorde Olimpikoa.

d) Espainiako Batzorde Paraolimpikoa.

e) Gizarte izaerako kirol entitate edo establezimendu pribatuak.

Salbuespenak ez ditu kirol ikuskizunak bere baitan hartzen.”

Lau.-17.1.17. artikuluarik l) letra eranstea.

“l) Garapenerako lankidetzak.”

Bost.-37.Bat.1.3. artikulua.

“3garren. Ezaugarri objektibo, ontziratze, presentazio eta kontserbazio egoera kontuan hartuta, nekazaritza, oihangintza edo abeltzaintzan zuzenean, ohizkotasun eta egokitasunez erabiltzen ahal diren ondasun hauek: haziak, landare nahiz animalien babes eta ugalketarako materialak; ongarriak, hondar organikoak, zuzentzaileak eta

enmiendak, belar-hilkariak, landareen edo abereen osasunerako erabiltzen diren pestizidak; lurretaltze, tunel edo berotegi bidezko laboreetarako plastikoak, eta fruta bildu aurreko babeserako paperezko poltsak.”

Sei.-37.Bat.2.7. artikulua.

“7garrena. Antzoki, zirku, zezen ikuskizun eta jaialdiak (zezenketak izan ezik), jolasparke eta barrakak, kontzertu, liburutegi, museo, zoologiko, zinema-areto eta erakusketetan eta Foru Lege honetako 17. artikuluko 1. zenbakiaren 8garren idazatian aipatzen diren antzeko kultur ekitaldietan sartzea, Zergatik salbuetsiak ez daudenean.”

**2. artikulua.** Ondoko eragiketei 100eko 7ko tasa murriztua aplikatuko zaie:

1. Erabilpen turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzko abenduaren 15eko 42/1998 Legeak 1. artikuluan aurreikusitako ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideak eta zerga arauak lagatzeko zerbitzu emateak.

2. Ostalaritza industriako zerbitzu osagarrietakoren bat ematen den urteko epe zehaztu batean edo zehaztu daitekeen batean ondasun higiezinak beste edozein motatako erabilpena.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37.Bat.2.2. artikuluan bildu diren zerbitzuak, ares-tian aipatu den abenduaren 15eko 42/1998 Legearen 4.3 artikuluan agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoak ematen dituztenak.

### Xedapen gehigarria

17.1.17.1) artikuluan arauturiko salbuespenaren ondorioetarako aplikatzekoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legean aurreikusitakoa.

### Xedapen iragankorra

1.-Inbertsio ondasunak eskuratu edo inportatzeagatik 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen jasandako edo ordaindutako kuotei ez zaie Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 53. artikulua ezarritako erregulazioa ezarriko, kuota horiek jasan zireneko urteari dagokionez ondoko urteetan aplikatzekoa den hainbanakoa aldatzen den neurrian, aipatu Foru Legearen 48, 50.2.2. eta 52. artikuluetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz, Lege beraren 26.2.3. artikuluan dirulaguntzak jasotzeari buruz, ezarritakoaren arabera, Balio Erantsiaren

gaineko Zergaren zerga oinarria integratzen ez duen heinean.

2.-1998ko urtarrilaren 1a baino lehen jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariak ez dira murriztuko, ondasunak edo zerbitzuak, zeinak eskuratzeko edo inportatzeko jasan baitziren arestian aipatu kuotak, finantzatzeko data horretatik aurrera adostutako kapital dirulaguntzak jasotzeagatik.

### Azken xedapenak

**Lehena.** Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ondoko ondorioekin:

– 1. artikulua 1999ko urtarrilaren 1etik aitzina, Lau zenbakia salbu, zeinak 1999ko uztailaren 9an hartuko dbait indarra.

– 2. artikulua ondorioak izanen ditu 1999ko urtarrilaren 5etik aitzina.

**Bigarrena.** Foru Dekretu honetako arauak behin-behinekoak izanen dira harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

## 21/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** 21/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jar-tzea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko ahalmena.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## 21/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuak, Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legearen bidez, Zerga Berezien gaineko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatzea onetsi zuen. Horren eraginez, bidaiarien garraio kolektiborako egokiak diren ibilgailuak zergari atxikirik

egonen dira, haien altuera edozein dela ere. Hori dela eta, bidezkoa da Nafarroako araudia aipatu Legeari egokitzea. Horretarako, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legearen lehenbiziko xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, behin-behineko arautuko duten xedapenak Foru Dekretu bidez onetsiko dira. Xedapen horiek hartu eta hamar eguneko epearen barnean Nafarroako Parlamentura igorriko dira, gero hark behin betikoz onetsi ditzan.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzi-ko urtarrilaren hogeita bosteko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorri,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legearen 42.1.a).2. artikulua aldatzea. Ondorioak 1999ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen ditu eta honela geldituko da.

“2. Bidaiarien garraio kolektiborako egokiak diren autobus, mikrobus eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzitoki baino gehiago badituzte, gidatzailearena barne.”

### Azken xedapena

Foru Dekretu honetako arauak behin-behinekoak izanen dira, harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.



## Nafarroako Basoei buruzko Plana

### LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 1998ko azaroaren 17, 18, 20 eta 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Basoei buruzko Plana onetsi zuen, eta hurrengo erabaki-proposamenak erantsi zizkion:

**1.-** 4.2.2 idazatiaren edukia aldatzea, "biomasari dagokionean, haren edukia garatuz eta zehaztuz".

**2.-** C puntua gehitu, 5. kapituluko (NAFARRO-ARENTZAKO OIHAN POLITIKA) 4 idazatian (OIHANA NAFARROAN),

"C, Oihan inguruen gizarte-funtzioa.

Nafarroako oihan inguruek hainbat baliabideri eusten diete, eta zenbait balio dituzte beraien baitan, hala nola, naturazkoak, ekologikoak, gizarte-koak, ekonomikoak eta kulturazkoak. Beraz, Nafarroako Basoei buruzko Planaren printzipio nagusizat hartu behar da aipatu oihan inguruek hurrengoei arreta egiteko funtzio soziala betetzea:

- a) Natur ondarea zaintzeari.
- b) Ur baliabideen kudeaketa eutsigarriari.
- c) Klima erregulatzeari.
- d) Uren eta airearen kalitatea hobetzeari, eta lurzoruen sorkuntza eta emankortasunari.
- e) Mortutze, higadura eta lur galtzearen kontrako borrokari.
- f) Landa inguruneke herriei eusteari eta funtsezko lehen gaiak ekoizteari.
- g) Herritarren hezkuntza eta aisialdiko erabilerrari.
- h) Paisajea zaindu eta bereoneratzeari, gizakien inguru naturalarekiko jardun harmonioitsuaren ondorioz.
- i) Historia-, kultura- eta zientzia-ondarea ikertu eta hobetzeari".

**3.-** D puntua gehitu, 5. kapituluko (NAFARRO-ARENTZAKO OIHAN POLITIKA) 4 idazatian (OIHANA NAFARROAN),

"D. Oihan inguruen kudeaketa eutsigarria.

Nafarroako oihan inguruak kudeatzeko -Basoei buruzko Plan honen helburuekin, eta belaunaldien arteko elkartasunarekin bat kudeatu ere-, uztartu egin beharko dira, alde batetik, erabilera eta aprobetxamendu egoki bat, lehengai berriztagarrien

iturri; eta, bestetik, inguru naturalaren zaintza eta hobekuntza, gogoan hartuz, betiere, inguru horiek dauden eremu geografikoetan errenta sortu behar dela.

Inguru horiek, gainera, bere osoan eta naturatik gertu kudeatuko dira, eta landaredia, fauna eta inguru fisikoa elkarrekin hartuko dira aintzat. Ondorengoak ere bermatuko dira: bioaniztasunaren zaintza, funtsezko prozesu ekologikoen iraupena eta natur baliabideen berritzea".

**4.-** 6. Helmugako HELBURUetan (Baliabideei egokitu zaion oihan industria lehiakorra garatzea) hauxe gehitzea:

"64. helburua Oihan sektoreko langileen prestakuntza".

**5.-** Planaren zortzigarren idazatiaren edukia aldatzea: " haren edukia egituraren ikuspegi oso batera hedatuz, eta, gainera, maneiurako jarraipideak gehituz".

**6.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Pagadiak. Gehitu: "5. Landare eta espezie laguntzaile oro errespetatu, eta are, mesedetuko duen oihanzaintza bultzatzea".

**7.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Pagadiak. Lortu nahi diren helburuak. Gehitu: "Pagadien aberastasun ekologikoa hobetu, eta basoen bioaniztasuna gehitu".

**8.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Pagadiak. Jarduketak. Gehitu: "Espezie laguntzaileei mesede eginen dien oihanzaintza erabiltzea".

**9.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Harizti atlantikoak (Quercus petraea eta Q. Robur). Gehitu: "Harizti lepatuen bereoneratzeari eutsi, ahal den neurrian, halako formazioak mantentuz".

**10.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Harizti atlantikoak (Quercus petraea eta Q. Robur). Jarduketak. Ordeztu: "2. Mantentze-lanak egitea harizti lepatuetan".

**11.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Harizti atlantikoak (Quercus petraea eta Q. Robur). Bitartekoak. Ordeztu: "3. Harizti lepatuak mantentzea".

**12.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Harizti mediterraneoak (Quercus faginea eta Q. humilis). Lortu nahi diren helburuak. Ordeztu: "Egungo azalerari eustea".

**13.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Harizti mediterraneoak (*Quercus faginea* eta *Q. humilis*). Jarduketak. Hurrengo jarri, zegoenaren orde: "Bigarren mailako ekoizpenak mobilizatzea (egurra, artzaintza, ehiza eta perretxikoak)"

**14.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Artadiak (*Q. ilex*) eta karraskalak (*Q. rotundifolia*). Lortu nahi diren helburuak. Hurrengo jarri, zegoenaren orde: "Artadiak eta karraskalak mantendu eta handitzea, oihan- eta artzain-erabilerak eta ekoizpen osagarriak hobetzea".

**15.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Ler gorritzako basoak (*Pinus sylvestris*). Lortu nahi diren helburuak. Hurrengo jarri, zegoenaren orde: "Arboldegi helduen berezko bereoneratzeko azalera gehitu, antolamendu planen arabera".

**16.-** Oihan inguruen etorkizuneko destinoa. Gaztainadiak (*Castanea sp.*). Lortu nahi diren helburuak. Hurrengo jarri, zegoenaren orde: "Gaztainadi zaharrak saneatu eta mantentzea, aberastasun handia dute-eta".

**17.-** 1. helmuga: Nafarroako arbaldun azalaren kopurua eta kalitatea hobetu. Helburuak. Gehitu: "Berezko estepa-inguruak mantendu eta bereoneratzea, luberritxerik ez egitea eta berezko baso-berritzea erabakitzea.

- Berezko ibarbasoak garatzea".

**18.-** 111. ekintza: Suteek edo bestelakoek deuseztutako arboldegiak berrosatzea. Gehitu: "Berezko bereoneratzen jarduketa osagarriok, eta birbasotze artifizial trinkoarekin egin behar diren beste haiek ere, Nafarroako Gobernuaren zuzeneko eskumen dira; beraz, guztiz finantzatu dituzte, baina sutea berez gertatu denetan soilik".

**19.-** 111. ekintza. 1. helburua. 11. helburuaren finantzaketa handitu deuseztutako arboldegiak bereoneratzean, halako moldez non Nafarroako Gobernuak 20 milioi gehiago jarriko duen izendaturiko urte bakoitzean, urteko 100 milioi osatu arte.

**20.-** 111. ekintza, Suteek edo bestelakoek deuseztutako arboldegiak berrosatzea, 11141 neurrirako (deuseztutako arboldegiak berrosatzeko dirulaguntzak, ehuneko ehun, batzuetan) 11162. erako, "Nafarroako Gobernuak 980 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 800 milioi pezetaren orde. 100 milioi erabiliko dira urtero, 1999ko ekitalditik hasi eta 2007. urteraino".

**21.-** 11162. neurria aldatzea: "Funtsean, deusezturiko arboldegiak bereoneratzeko xedea izanen duten gomendio teknikoak garatzea".

**22.-** 1. helmuga, 111. ekintza, Suteek edo bestelakoek deuseztutako arboldegiak berrosatzea. Ekintzaren azalpenaren azken aldera, hauxe gehitu: "...eta balizko aprobetxamenduaren 100eko 20."

**23.-** 121. ekintza. Oihanzaintza egokia erabilitea. 12141. neurrirako (Oihanzaintzarako laguntzak) eta 11162. neurrirako, "Nafarroako Gobernuak 480 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 300 milioi pezetaren orde. 50 milioi erabiliko dira urtero, 1999ko ekitalditik hasi eta 2007. urteraino".

**24.-** 121. ekintza. Oihanzaintza egokia erabilitea. 12192. neurria gehitu: "Oihanzaintza eutsigarriaren irizpideak garatuko dituen erregelamedua lantzea".

**25.-** 121. ekintza. Oihanzaintza egokia erabilitea. 12192. neurria gehitu: "Oihanzaintza eutsigarriaren irizpideak erabiliz ateratako oihan produktuentzako ziurtagiria garatzea".

**26.-** 121. ekintza. Oihanzaintza egokia erabilitea. 12193. neurria gehitu: "Oihanzaintza eutsigarria oihan eremu guztietan arian-arian ezartzeko ahaleginari pizgarriak ematea".

**27.-** 121. ekintza. Oihanzaintza egokia erabilitea. 12194. neurria gehitu: "Oihanzaintza eutsigarriaren irizpideak erabiliz ateratako oihan produktuen ingurugiro-onuren informazio egokia ematea herritarrei".

**28.-** 12263. neurria, Espezie bitxientzako oihanzaintza-ereduak garatzea, hauxe jarri, dagoenaren orde: "Arboldegi-mota ezberdinak kudeatzeko oihanzaintza-jarraibideak argitara ematea, euskaraz eta gazteleraz. Nafarroako Gobernuak, toki entitateetako eta oihan elkarteentzako langileei eta jabe partikularrei helaraziko zaizkie".

**29.-** 123. ekintza. Populikultura sustatzea. Azken lerroaldea gehitzea: "Ibai bazterren bereoneratzea bultzatzea izanen da laguntzen xede nagusia, eta baita babes-figuraren baten pean diren ibarbasoen azalera gehitzea ere".

**30.-** 13193. neurriari hurrengo testua gehitu: "... udal, kontzeju, mankomunitate, partzuergo eta ohiko entitateekin".

**31.-** 132 ekintza. Egun hirien inguruan diren basoak egokitzea, bizi-kalitatea hobetzeko. 13241. neurria; hauxe jarri, idatzita dagoenaren orde: "Hiri inguruko kudeaketaren aparteko kos-

tuentzako dirulaguntzak, gauzatutako kostuaren %100eraino”.

**32.-** 132. ekintza. Egun hirien inguruan diren basoak egokitzea, bizi-kalitatea hobetzeko. 13241. neurriarentzako eta 13262.era, “Nafarroako Gobernuak 285 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 150 milioi pezetaren orde. 30 milioi erabiliko dira urtero, 1999ko ekitalditik hasi, 2007.eraino”.

**33.-** 133. ekintza. Egun hirien inguruan diren basoak egokitzea, bizi-kalitatea hobetzeko. 13341. neurria, hurrengo jarri, dagoenaren orde: “Arbol lerroak sortzeko dirulaguntzak, gauzatutako kostuaren 100eko %eraino gehitu”.

**34.-** 133. ekintza. Arbol lerratuak eta oihal moduan jarriak garatzea, hiri-inguruetan. 13341 eta 13342 neurrietarako, “Nafarroako Gobernuak 139,5 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 45 milioi pezetaren orde. 15 milioi erabiliko dira urtero, 1999ko ekitalditik hasi, 2007.eraino”.

**35.-** 133. ekintza. Arbol lerratuak eta oihal moduan jarriak garatzea, hiri-inguruetan. 13342. neurria, hurrengo jarri, dagoenaren orde: “Kutsadurari eta zaratari aurre egiteko “oihalak” sortzeko dirulaguntzak, gauzatutako kostuaren 100eko %eraino gehitu”.

**36.-** 14141. neurriaren testua ordeztu: “Gara-pen iraukerarako estrategiak erabiltzea mendiko lur ahuletan”.

**37.-** 141. ekintza. Aniztasuna bultzatzea arboldegietan espezieen, egituraren eta kudeaketa-metodoen aldetik. 14141. neurriaren testua ordeztu: “Jardutako laguntza arautuak, oihan ekosistema egonkorragoak lortzeko”.

**38.-** 141. ekintza. Aniztasuna bultzatzea arboldegietan espezieen, egituraren eta kudeaketa-metodoen aldetik. 14141, 14162 eta 14163 neurrietarako, “Nafarroako Gobernuak 45 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno. Planak urte bakoitzeko aurreikusi dituen jarduketan arabera banatuko dira, 1999ko ekitalditik hasi, 2007.eraino”.

**39.-** Beste neurri bat jarri 14163.aren ondoren, hurrengo testuarekin: “Une bakoitzari dagokien bio-aniztasunari eustea bermatuko da”.

**40.-** 151. ekintza. Nekazaritza eta abeltzaintzarako gutxi balio duten lurak birbasotzea: “Nekazaritza lurak birbasotzeko laguntzek kontuan izanen

dituzte eragina jasan dezaketen hegazti-populazioak (estepakoak...)”.

**41.-** 151. ekintza: Nekazaritza eta abeltzaintzarako gutxi balio duten lurak birbasotzea. Hauxe gehitu: “Nekazaritza lurak birbasotzen direla zainduko du Nafarroako Gobernuak, eta ez du dirulaguntza horiek bestelako xedetan edo birbasotzetan erabiltzen utziko”.

**42.-** 15121. neurriari gehikuntza egitea: “Nekazaritza lurak birbasotzeko dirulaguntzetarako gutxieneko baldintzak mugatzea.”

**43.-** 15144. neurriari gehikuntza egitea: “Dirulaguntzen baldintzetan hurrengoak jasoko dira: nekazaritza lurak birbasotzeko emandako diruari jarraipena egin beharra, eta, hala badagokio, dirua itzuli beharra”.

**44.-** 151. ekintza: Nekazaritza eta abeltzaintzarako gutxi balio duten lurak birbasotzea. 15143 neurriarako (nekazaritza lurak birbasotzeko dirulaguntzak), orobat 15121 eta 15122 neurrietarako, “Nafarroako Gobernuak 1180 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 1000 milioi pezetaren orde. 120 milioi erabiliko dira urtero, 1999ko ekitalditik hasi, 2007.eraino”.

**45.-** 152. ekintza: Zuhaitzik gabeko mendiak birbasotzea, oihanen aldetik defizita duten eskualdeetan. Hurrengo testua gehitu azalpenari: “Hau-xek finkatu behar dira gastua optimizatzeke: eskualdeak eta birbasotze berrien gutxieneko zehaztasunak, aurreikusitako helburua lortuko bada (gutxieneko azalerak, udalaren barruko lehentasunak, ingurugiro egokitasuna...)”.

**46.-** Beste neurri bat jarri 15221aren ondoren, hurrengo testuarekin: “Ekintza bereziak, higadura edo mortutzea handia denean, horiek nagusitzeko arriskua denean”.

**47.-** 152 ekintza. Zuhaitzik gabeko mendiak birbasotzea, oihanen aldetik defizita duten eskualdeetan. 15222. neurria gehitzea, hurrengo izenarekin: “Zuhaitzak lerroan jartzea garatu, lurzati kontzentrazioarekin batera”.

**48.-** 211 ekintza. Ibai arroetako buruetako eta birkargatzeko eskualdeen babes-eremuetako zuhaitzak zaintzea. Hauxe jarri bestelako eragileei buruzko atalean, zerikusia duelako, eskumenen aldetik: “Ibai arroko organo eskuduna”.

**49.-** Hauxe gehitu 21122. neurriari: “... Nafarroari eragiten dioten ibaiarro planak osatuz”.

**50.-** Beste neurri bat jarri, 21164aren ondoren, hurrengo testuarekin: “Oihanaren eta ibai-burua-

ren arteko integrazio osoa eragingo duten irizpide nagusiak ezarri”.

**51.-** 212. ekintza. Babes oihanzaintza sare hidrografikoaren baitan. Azken lerroalde bat jarri, hurrengo testuarekin: “Gaur egun diren berezko ibarbasoetan garatuko dira jarduketak horiek, funtsean”.

**52.-** 212. ekintza. Babes-oihanzaintza sare hidrografikoaren baitan. Bestelako eragileen idazatian, hauxe ere jarri: “Ibai arroko organo eskuduna”.

**53.-** 231. ekintzaren (Naturgune babestuen sarea garatzeko sustengua) lehen lerroaldearen orde, hurrengo testua jartzea: “Habitat zuzentzarauaren aplikazioak beharrezko egiten du interes komunitarioa duten berezko habitatak zaintzea, Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) sortuz. Hori dela eta, hauxe proposatuko da: interes komunitarioko berezko habitatak osatzen dituzten onura publikoko mendiak KBE deklaratzeko Nafarroan”.

**54.-** Bigarren lerroalde bat jarri 231. ekintzari (Naturgune babestuen sarea garatzeko sustengua). Hona testua: “Hurrengoak ere proposatuko dira KBE deklaratzeko Nafarroan: Urari buruzko Legean eta Hirigintzako Eskualde Arau indarreko- ei buruzko Foru Legean finkatzen diren ugaldetilguen babes-eremuen baitan dauden interes komunitarioko erriberako basoak”.

**55.-** 23211. neurriaren testua aldatzea, hona: “Helburua lortzeko lurralde-irizpide egokiarekin erabiltzea berezko garapenaren %5a”.

**56.-** 233. ekintzari beste eragile bat gehitzea: “Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.”.

**57.-** 233 ekintza (Oihan-landarediaren babesa) garatzeko neurri bat sartzeko. Hona: “23341. neurria - Babestutzat jotako oihan-landarediko espezieak zaintzeko jarduketak garatzeko laguntzak”.

**58.-** Bigarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurriak: motakako banaketa), Sustapen Neurrien baitan, 23341. neurria gehitzea, hurrengo tituluarekin: “Babestutzat jotako oihan-landarediko espezieak zaintzeko jarduketak garatzeko laguntzak”.

**59.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 23341. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: “Babestutzat jotako oihan-landarediko espezieak zaintzeko jarduketak garatzeko laguntzak”.

**60.-** Bigarren helmuga garatzeko -alegia, oihanen zaintza bultzatzea, bioaniztasunaren gordele-

ku eta natur baliabideen kalitatearen berme direnez-, 234. ekintza sartzeko, hurrengo izenarekin: “Aniztasun biologikoa zaintzeko eta modu eutsigarrian erabiltzeko Nafarroako estrategiaren irizpideak sartzeko”.

**61.-** 234. ekintzan, -alegia, aniztasun biologikoa zaintzeko eta modu eutsigarrian erabiltzeko Nafarroako estrategiaren irizpideak sartzeko, 23491. neurria sartzeko: “Bioaniztasuna zaintzeko Nafarroako estrategiaren norabideak kontuan hartzea”.

Neurri honekin, Basoei buruzko Planetik ateratako neurriak bideratu nahi dira, hurrengo irizpideek markatzen duten ildotik.

1. Nafarroako bioaniztasunak eta paisajeak egun jasaten dituen mehatxuak gutxitu edo, hala balitz, kentzea.

2. Nafarroako biologia- eta paisaje-aniztasuna sendotzea.

3. Nafarroaren trinkotasun ekologikoa bultzatzea, bere osotasunean.

4. Nafarroako gizartearen erabateko partehartzea segurtatzea bioaniztasunaren alderdi guztien zaindarian”.

**62.-** 234. ekintzan, -alegia, aniztasun biologikoa zaintzeko eta modu eutsigarrian erabiltzeko Nafarroako estrategiaren irizpideak sartzeko, 23492. neurria sartzeko: “Bioaniztasuna zaintzeko Nafarroako estrategiaren helburu estrategikoak kontuan hartzea”.

Neurri honekin, Basoei buruzko Planetik ateratako jarduketak bideratu nahi dira, hurrengo helburu estrategikoek markatzen duten ildotik.

1. Nafarroako paisajea osatzen duten ekosistema, habitat, espezie edo nolakotasun nagusiak zaindu, hobetu eta bereonertzea.

2. Bioaniztasunaren kudeaketa eutsigarria ziurtatu, eta ahalik eta etekinik hoberenak atera gizarte- eta ekonomia-arloetan dauden aukeretatik.

3. Bioaniztasuna zaindu eta modu eutsigarrian erabiltzeko helburuak uztartzea, bioaniztasuna, nola edo hala, baldintzatzen duten sektore sozioekonomiko guztietan; izan ere, jarduketak horiek eragin handia baitute bioaniztasunean.

4. Bioaniztasunari buruzko informazioa hobetzea eta herritarrak sentiberatzea: gizarteak parte har dezala ondare natural hori zaindu eta aberas- teko ekintzetan.

**63.-** 24142. neurriaren testua ordeztea: “Espezie hobekitzailleak landatzeko laguntzak”en orde, hauxe jarri: “Hondakindegia eta zabortegeak espezie hobekitzailleekin birbasotzeko laguntzak.”

**64.-** 31195. neurriaren testuaren orde, hauxe jarri: “Natur-hondamendia gertatzeko arriskua duten guneen katalogoa egitea”.

**65.-** Beste neurri bat jarri, 32151.enaren aurretik, 247. orrialdean, hurrengo testuarekin: “1912ko katalogoa eguneratzea”.

**66.-** Beste neurri bat jarri, 32193.enaren ondoren, hurrengo edukiarekin: “Onura publikoko mendien eta mendi babestaileen zerrenda egitea”.

**67.-** 332. ekintzari (Oihanari kalte egiten dioten eragileen aurkako borroka integratua) beste lerroalde bat gehitzea: “Tratamendu biologikoen ikerketa eta aplikazioa areagotuko da borroka integratua, eta debekatu egingen da kutsadura handiko sintesi-pestizidak erabiltzea”.

**68.-** 332. ekintzan (Oihanari kalte egiten dioten eragileen aurkako borroka integratua), 33241. neurriaren testuaren orde, alegia, Borroka integratuarentzako dirulaguntza, hauxe jarri: “Onura publikokotzat jotako borroka integratuaren kostua %100 diruz laguntzea”.

**69.-** Hirugarren eranskina (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: burutze-urtearen arabeko banaketa), 1999ko ekitaldian betetzeko, 33241. neurriaren bestelako definizioa: “Onura publikokotzat jotako borroka integratuaren kostua %100 diruz laguntzea”.

**70.-** 33293. neurriaren ondoren, beste bat jarri, hurrengo testuarekin: “Bost hilabeteko epean onetsiko dira araugintza-irizpide batzuk, zeinek oihan lurretan kokatzeko instalazio eta eraikinak ingurugiroan txertatzeko baldintzak finkatuko dituzten”.

**71.-** Beste neurri bat jarri, 33293.eren ondoren, hurrengo testuarekin: “Ingurugiro-eraginei buruzko azterlana hedatuko da mendietan jarduteko”.

**72.-** Beste neurri bat jarri, 33293.eren ondoren, hurrengo edukiarekin: “Euri azidoaren eraginak neurtzeko irizpideak erabiliko dira”.

**73.-** 332. ekintzan (Oihanari kalte egiten dioten eragileen aurkako borroka integratua), 33242. neurria gehitzea: “Onura publikokotzat jo gabeko borroka integratua hein batean diruz laguntzea”.

**74.-** Bigarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurriak: motakako banaketa), Sustapen Neurrien baitan, 23342. neurria gehitzea: “Onura publikokotzat jo gabeko borroka integratua hein batean diruz laguntzea”.

**75.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 23342. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: “Onura publikokotzat jo gabeko borroka integratua hein batean diruz laguntzea”.

**76.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 33293. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: “Izurriteen aurkako borroka (onura publikokotzat jotakoa)”.

**77.-** 332. ekintzan (Oihanari kalte egiten dioten eragileen aurkako borroka integratua), 33294. neurria gehitzea: “Izurriteen aurkako borroka (onura publikokotzat jo gabekoa)”.

**78.-** Bigarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurriak: motakako banaketa), Bestelako Neurrien baitan, 33294. neurria gehitzea: “Izurriteen aurkako borroka (onura publikokotzat jo gabekoa)”.

**79.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 33294. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: “Izurriteen aurkako borroka (onura publikokotzat jo gabekoa)”.

**80.-** 34. helburua, Baso-suteak eta haien kalteak gutxitzea, 340. ekintza gehitzea: “Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila”.

**81.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) 34011. neurria gehitzea: “Sute arriskua gutxitzeko baso-kudeaketa ezartzea. Oihan ekosistemaren aniztasuna eta dibertsitatea bermatu beharko du kudeaketa horrek, eta mosaiko erako paisajea ezarri, hain sukoia ez delako”.

**82.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) hauxe gehitzea: “34012. neurria - Aurreneurriak bultzatzea, eta zaintza-ekoizpena oreka bermatzea. Ahaleginak eta inbertsioak aurrea hartzeko oihanzaintza taxutzen erabili behar dira: sastraken garbiketa selektiboa eta kokatua, basobera guttiz kendu gabe; baso-soilune orokortu eta selektiboak (arraseko mozketak saihestuz, beti ere)”.

**83.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) hauxe gehitzea: “34013. neurria - Birbasotze-programa selektiboen plangintza (egun diren arboldegien kontserbazioa bermatzeko lehentasuna bete ondoren), sute-arriskua kontuan hartzeko, lehenengo eta behin, espezie egokiak –bertakoak, betiere– eta haien egitura –inola ere ez da homoginoa edo espezie bakarrekoa izanen– aukeratzeko garaian. Ez da

birbasotze proiekturik onetsiko, baldin eta kontu-sailik ez badu hauxe bermatzeko: geroko kontserbazioa eta heldutasunerako garapena lortzeko oihanzaintza egokia erabiliko direla”.

**84.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) hauxe gehitzea: “34014. neurria - Zur errea merkaturatzeko bideak kontrolatzea, legedia egokiaren bidez, zertarako-eta merkatuaren ahulezia edo haustura eraginen duten prezio-galera eta prezio-espekulazioa ekiditeko. Zur errea merkaturatzeko zirkuitu bereki bat ezarri beharko da, erabat kontrolatua eta gardena, zuraren eta paperaren industriek, zuzen edo zeharka, prezioak arbitrarioki merkatzea ekiditeko. Zur errea atera aurretik, Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlana derrigorrez egin behar dela ezarri, mendia noren jabetzapekoa den begiratu gabe”.

**85.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) hauxe gehitzea: “34015. neurria - Zur errearen eta bestelako zurgai kalte-tuen aprobetxamenduaren ondoriozko dirusarrerak erretako mendiak bereoneratzen erabili beharko direla ezarriko da, inongo salbuespenik gabe”.

**86.-** 340. ekintzari (Sei puntu baso-suteen arazoaren irtenbideen bila) hauxe gehitzea: “34016. neurria - Foru Komunitateak alde interesdun bezala agertu beharko du baso-suteen ondoriozko prozedura penaletan, eta horiek bukatu arte jarraituko ditu. Ahalik eta zabalkunderik handiena emanen zaie ikerketen ondoriozko atxiloketei; orobat, baso-suteak eragin dituzten egintzen ondoriozko epai eta zehapenei”.

**87.-** 341. ekintza. Baso-suteei aurrea hartzeko neurriak ezartzea. Beste eragile bat sartu: “ADE-MAN”

**88.-** 341. ekintza. Baso-suteei aurrea hartzeko neurriak ezartzea. Beste eragile bat sartu: “Nekazaritza sindikatuak”.

**89.-** Beste neurri bat jarri 34121.aren aurretik: “Baso-lurretako suteei buruzko arautegia aldatu, suteak debekatze aldera, mendiak berak edo ohiko usadioek bestela eskatzen dutenetan salbu”.

**90.-** 341. ekintza. Baso-suteei aurrea hartzeko neurriak ezartzea. Beste neurri bat sartu: “34195-Baso-asegurua bultzatzea”.

**91.-** 342. ekintza. Baso-suteei aurre egiteko prestakuntza. Beste eragile bat sartu: “Natura Zaintzeko Zerbitzua”.

**92.-** 342. ekintza. Baso-suteei aurre egiteko prestakuntza. Beste eragile bat sartu: “Nekazaritza sindikatuak”.

**93.-** 342. ekintza. Baso-suteei aurre egiteko prestakuntza. Beste lerroalde bat gehitu testuari: “Ingurugiro eraginei buruzko azterlana egin beharko da suebakiak egiteko baimena eman baino lehen; ingurugiro-bereoneratze proiektua ere egin beharko da, neurri zuzentzaile egokiak ezartzeko”.

**94.-** 342. ekintza. Baso-suteei aurre egiteko prestakuntza. Beste lerroalde bat gehitu testuari: “Ibilgailuak pasatzeko mugak jarriko dira suebaki-tan, alegia, hesiak edo antzeko instalazioak, berez dituzten zereginetarako eta mantentze-lanetarako baino erabil ez daitezen”.

**95.-** 342. ekintza. Baso-suteei aurre egiteko prestakuntza. Beste neurri bat gehitzea testuari: “34293 - Suteei aurre egiteko oinarrizko azpiegitura sortzea (pistak, urguneak eta suebakiak), eta antolamendu planetan aurreikustea”.

**96.-** 411. ekintzaren tituluarri hauxe gehitu: “Baso-bide eta -errepide plan bat egitea, antolamendu planekin batera”.

**97.-** 411. ekintza. Baso-bide eta -errepide plan bat egitea, antolamendu planekin batera. Beste eragile bat gehitu: “Nekazaritza sindikatuak”.

**98.-** 411. ekintza. Baso-bide eta -errepide plan bat egitea, antolamendu planekin batera. Beste lerroalde bat gehitzea testuari: “Edonola ere, aipatu baso-bide eta -errepide plan hori egun dauden pistak aprobetxatu eta hobetzera lerratuko da, higadura-arriskua gehitu dezaketzen trazadura berriak ekiditearren”.

**99.-** Beste neurri bat erantsi 41121.aren aurretik, “Baso-pistak eraikitzeo irizpideak eta nolokotasunak finkatzea”.

**100.-** Beste neurri bat erantsi 41192.aren aurretik, “Paisajearen tonalitatearekin bat datorren estaltze-materiala erabiltzea”.

**101.-** Beste neurri bat erantsi 41192.aren ondotik, “Baso-pistak erabiltzea debekatzea baso-ibilgailu ez direnei”.

**102.-** 412. ekintza. Basoko bideen sarea sortu, hobetu eta mantentzea. Ekintza azaltzeko lehen lerroaldearen azken aldera, “aisialdia” jarri “turismo”ren ordean.

**103.-** 412. ekintza. Hauxe erantsi: “Basoko bideen sarea sortu eta mantentzea, antolamendu planen arabera”.

**104.-** 412. ekintza. Basoko bideen sarea sortu, hobetu eta mantentzea. Hauxe gehitu ekintza azaltzen duen testuari: "Trazadura berriko pista orok beharko ditu ingurugiro eraginei buruzko azterlana eta ingurugiro-bereoneratzerako proiektua; egurra ateratzeko lanak eta bestelako baso-lanak bukatu eta berehala burutuko da proiektu hori; izan ere, aipatu erabileretarako besterik ezin izanen da pista erabili".

**105.-** 412. ekintza. Basoko bideen sarea sortu, hobetu eta mantentzea. 41241. neurriaren testuaren ordez, hauxe jarri: "Baso-bideen sarea mantentzeko laguntzak, ezarri diren bide-moten araber".

**106.-** Beste neurri bat jarri, 41242.aren ondoren, hurrengo testuarekin: "Sarguneetatik gertu jarriko dira zerbitzu egokiak, aparkalekuak, zerbitzuak, begiratokiak, informazioa, hezkuntza, eta abar."

**107.-** 431. ekintza: Abeltzaintza bultzatzea, horretarako egoki diren mendietan. 43142. neurria eranstea: "Larreak ixteko heskaiak sortzeko laguntzak".

**108.-** 512. ekintzaren tituluari hauxe gehitzea: "Mendi publikoen aisialdi- eta gizarte-erabilera bultzatzea, mendi horien oinarriko eginkizunetan traba egin gabe".

**109.-** 5142. neurriaren tituluaren ordez, hauxe jarri: "Kultura- eta turismo-ibilbideak sortzea landa-garapenean".

**110.-** 521. ekintza. Baso-oihanak ingurugiro-heziketan txertatzea, curriculum-edukien bitartez. Beste eragile batzuk sartu: "Talde ekologistak".

**111.-** 522. ekintza. Eskolaz kanpoko baso-hezkuntza indartzea. Beste eragile batzuk sartu: "Talde ekologistak".

**112.-** 522. ekintza. Eskolaz kanpoko baso-hezkuntza indartzea. Beste eragile batzuk sartu: "Ikastetxeak".

**113.-** Beste neurri bat jarri, 52271.aren aurretik: "Hezkuntza-ekintzak baso-lurrean bertan eta komunikabideetan irautea".

**114.-** 531. ekintza. Paisaje- eta kultura-balioa duten zuhaitz eta baso-gune eta -inguruak mantentzea eta garatzea. Hauxe gehitu: "5319. neurria - Paisaje- eta kultura-balioa duten baso-gune eta -inguruak zaintzea".

**115.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 53241. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: "Mendiekin zeri-

kusia duten historia- eta kultura-ekimenentzako dirulaguntzak".

**116.-** 532. ekintza. Mendiekin zerikusia duten historia- eta kultura-ekimenentzako dirulaguntzak. Hauxe gehitu: "53291. neurria -mendi enblematikoen eta titulartasun-arazoak dituztenen bilakaera historikoari buruzko azterlanak sustatzea".

**117.-** Bigarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurriak: motakako banaketa), Bestelako neurrien baitan, hauxe gehitu: "53291. neurria -mendi enblematikoen eta titulartasun-arazoak dituztenen bilakaera historikoari buruzko azterlanak sustatzea".

**118.-** Hirugarren eranskinari (Basoei buruzko Planaren neurri zehatzak: betetze-urtekako banaketa), 53291. neurria gehitzea, 1999ko ekitaldian betetzeko, hurrengo tituluarekin: "53291. neurria -mendi enblematikoen eta titulartasun-arazoak dituztenen bilakaera historikoari buruzko azterlanak sustatzea".

**119.-** 612. ekintza. Zerra-makinak eta eraldatzekoak aldatu. Lerroalde bat erantsi, hurrengo testuarekin: "Eragin txikiko makinak erabiltzea sustatuko da".

**120.-** 612. ekintza. Zerra-makinak eta eraldatzekoak aldatu. Hurrengo neurria erantsi: "61294 - Eragin txikiko makinak erabiltzea sustatuko da".

**121.-** 613. ekintza. Baso-enpresetako langileen prestakuntza teknikoa eta enpresariala. 61341, 61372 eta 61373. neurriak garatzeko eragileen artean, hauxe gehitu: "Mintegien azpisektoreko enpresak".

**122.-** 614. ekintza. Nafarroan ekoiztutako zura- ren bigarren eraldaketa garatzea. 61494. neurria eranstea: "Teknologia garbiak bultzatzea papergintza-sektorean".

**123.-** 614. ekintza. Nafarroan ekoiztutako zura- ren bigarren eraldaketa garatzea. Beste lerroalde bat jarri testuaren bukaeran, hurrengo edukiarekin: "Papergintza-sektorean teknologia garbiak sustatzeko lerroa sortzea ere aztertuko da".

**124.-** 61541. neurriaren testua aldatzea: Baso-hondakinetatik energia ateratzeko instalazioentzako dirulaguntzaren ordez, hauxe jarri: "Tokian tokiko baldintza ekologikoei eusteko behar ez diren baso-hondakinetatik energia ateratzeko instalazioentzako dirulaguntza".

**125.-** Beste neurri bat erantsi, 61552.aren ondoren: "Biomasaren ondoriozko energia-ekoizpena areagotzea".

**126.-** 621. ekintza: Enkante-sistema hobetzea. Beste eragile bat sartu: "ADEMAN".

**127.-** 62144. neurria kendu.

**128.-** Beste neurri bat jarri, 624 eta 752 ekin-tzen osagarri: "Batzorde bat sortzea, Baso Administrazioarekin eta zura eta bestelako gai apala-goak aprobetxatzen dituzten enpresekin".

**129.-** 62491. neurriaren azken esaldia kendu, "gutxinekoa" hitzarekin bukatuko baita.

**130.-** 631. ekintza. Ezpela, gorostia, goroldioa eta beste basagai batzuk ekoitzi eta saltzearen arrazionalizazioa. Beste eragile bat sartu: "Natura Zaintzeko Zerbitzua".

**131.-** 7. helmugari beste ekintza bat erantsi eta behar bezala egokitu, gero. Hona testua: "Kanpo-ko laguntza eta urgazlaritza bilatzen laguntzea".

**132.-** 7. helmuga. Baso-aritzaileen kudeaketa-gintza garatu eta hobetzea. Beste ekintza bat erantsi: "Nafarroako Oihan Ondareko mendietako jarduketan plangintza". Eta beste neurri bat ere: "Nafarroako Oihan Ondareko lurrak eta horien hel-buruak aipatzea, eta baita mendi horietan antola-mendu-proiektuak egiteko beharra ere".

**133.-** Beste neurri bat jarri, 71121. aren aurretik: "Mendiak inbentarioan sartu behar dira, indarreko legediarekin bat".

**134.-** 71122. neurriaren testua aldatzea, alegia, "Herri jabetza Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharra, indarreko legediarekin bat".

**135.-** 71154. neurria kentzea.

**136.-** Beste neurri bat jarri, 71345.aren ondoren: "Mendi publikoen baitan dauden lur pribatuak kentzeko irizpideak finkatu".

**137.-** Beste neurri bat jarri, 71242.aren ondoren: "Nafarroako mendiaren ikurra diseinatzea".

**138.-** Beste neurri bat jarri, 71242.aren ondoren: "Seinaleztapena hezkuntzarako ere erabil-tzea".

**139.-** 713. ekintza. Baso jabetzaren egitura hobetzea. Azalpenaren bigarren lerroaldeko tes-tuaren orde, hurrengo jarri: "Horrelakoetan, Komunitateko Administrazioak hainbat ildotik jar-dungo du, baso-lurzatiak biltzea erraztearren:

1. Basoko lurzati-kontzentrazioak egiteko arau bereziak garatzea.

2. Baso-erabilerako lurrak, herri-lurrak eta oihanzaintzarako interesa duten lurrak har ditzake-ten nekazaritzazko lurzati-kontzentrazioen jarraipena egitea.

3. Baso-jabetza zatikatu gabe eskualdatzea bultzatzea, zergen aldetik, ondoretza eta dohain-tzen zerga-oinarria murriztuz.

4. Baso-lurren fondo bat eratzea, oihan-ustia-tegi handiagoak eratzea kudeatzeko. Horretarako, arautu egin beharko fondoaren funtzionamendu egokia sustatuko duten lur-erosketak, dohaintzak, salmentak eta zerga-salbuespenak".

**140.-** 721. ekintza. Oihan talde eta partzuergo-ak sortzea. Beste izen bat jarri, hona: "Oihan talde, elkarte, kooperatiba edo partzuergoak sor-tzea".

**141.-** 72121. neurria aldatzea, hurrengo tes-tuarekin: "Birbasotzeak arautu eta bultzatzea, jabe pribatu edo publikoekiko talde, partzuergo edo hitzarmenetan".

**142.-** 721. ekintza. Oihan talde eta partzuergo-ak sortzea. 72121. neurria: Oihan talde eta par-tzuergoen gaineko erregelamenduzko garapena. Beste izen bat jarri, hona: "Oihan talde, elkarte, kooperatiba edo partzuergoen gaineko erregela-menduzko garapena".

**143.-** 72242. neurriari hauxe erantsi: "Hitzar-menak egin daitezke oihan-elkarteekin, jabetza partikularreko baso-lurren kudeaketa erraztu eta hobetzeko helburu nagusiarekin".

**144.-** 731 eta 732 ekintzak kentzea.

**145.-** 732. ekintza. Baso-administraziooko giza-taldea indartzea. Hurrengo jarri, testuaren orde: "Plan honen lerro nagusien ildotik, oihan-adminis-trazioaren giza-taldea sendotu behar da, nahikoa langile jarri behar dira, prestakuntza hobetu eta Mendi Zerbitzua berriro sortu, sektore honek dituen arazoan aniztasun eta zailtasuna hartzeko besteko administrazio-funtsa nahikoarekin".

**146.-** 732. ekintza. Baso-administraziooko giza-taldea indartzea. "Nafarroako Gobernuaren finan-tzaketa bost milioi pezetarekin emendatzea pro-posatzen da, Planak izendatu duen urte bakoitzerako".

**147.-** 732. ekintza. Beste neurri bat, hurrengo testuarekin: "Oihan-administrazioaren zerbitzuko ibilgailuak berritzeko behar den gastua egiteko konpromisoa, bost urtetan, gehienez ere".

**148.-** 732. ekintza. Beste neurri bat, hurrengo testuarekin: "Oihan-administrazioak emandako prestakuntza-programak, Foruzaingoaren Babes Ekologikoaren Unitaterako".

**149.-** 732. ekintza. 73252. neurriari hauxe gehitzea: "Etengabeko prestakuntzarako sistema bat sortzea, INAPen lankidetzarekin, zertarako-



eta ikastaro bereziak egiteko, urtero, basozainen-tzako eta oihan-administrazioko langileentzako. Aldi berean, beste autonomia-erkidegoetako edo beste estatu batzuetako oihan-zerbitzu edo oihan-elkarteekiko lankidetzak hitzarmenak izenpetu ahal dira, esperientziak trukatzeko. Neurri hori betetzeko, ezinbestekoa da Administrazioaren zerbitzuko langileen prestakuntzarako aurreikusi diren diru kopuruak handitzea eta aurrekontuetan kontusail bereziak sortzea”.

**150.-** 751. ekintza. Baso-enpresetako langile eta enpresarioen prestakuntza teknikoa, enpresariala, oihanzaintzazkoa eta ekologikoa. Hauetxek gehitu eragileei: “Talde ekologistak”.

**151.-** 751. ekintza. Baso-enpresetako langile eta enpresarioen prestakuntza teknikoa, enpresariala, oihanzaintzazkoa eta ekologikoa. Hauetxek gehitu 75121 eta 75142. neurriak garatzeko eragileei: “Mintegiaren azpisektoreko enpresak”.

**152.-** 754. ekintza. Oihan-mintegiak sendotu eta hobetzea. Hurrengo testua gehitu: “..... eta landarearen kalitatea, eta baita ikerketa-zeregin bereziak ere, Europako arauekin bat”.

**153.-** 75493. neurria. Gestión Ambiental, VVRR de Navarra, S.A.k ekoizitako merkatu-landara arian-arian gutxitzea. Hurrengo testua erantsi: “Diputazioko Mendi Zerbitzutik eginen diren birbasotzeak lehiaketaren bidez gauzatuko dira”.

**154.-** Beste neurri bat jarri 75493.aren ondoren: “Aurreko neurrian aipatu den sozietate publikoaren helburua aldatu, eta ikerketa aplikatura murriztu”.

**155.-** Hauxe gehitu 761, 841 eta 842. neurrien osagarri: “Lankidetzak hitzarmenak egin daitezke Nafarroako Gobernuaren eta oihan-karrerak ematen dituzten unibertsitateen artean”.

**156.-** 761. ekintza. Azalpenaren testuaren orde, hauxe jarri: “Esparru zabala dago gaurko gizartean bolondresen lanarentzako. Oihan sektorean era badira gizarte-taldearen interesa erakartzen duten jarduketak. Bolondresen ahaleginak behar bezala bideratzeko mendien zaintzan eta kontserbazioan, ezinbestekoak dira erregelamenduzko esparrua, jarduteko helburu argiak eta hori guztia eratu, antolatu eta garatzeko finantza-dotazioak”.

**157.-** Beste ekintza bat eranstea, hurrengo testuarekin: “762. Oihan-programa komunitarioetako adituen trukaketak”, geroko banakaketa eta guzti.

**158.-** Zortzigarren helmugan, ekintza bat eta bere garapena erantsi. Hurrengoak izanen ditu:

“Foru Komunitatearen eta inguruko administrazioen arteko harremanak, lurralde mugakideetan hedatzen diren arboldegiei buruzko koordinazio eta elkarrekikotasun irizpideen arabera”.

**159.-** Beste neurri bat erantsi 811. ekintzari: “Oihan eta ingurugiro arloei buruzko legediaren bilduma bateratua egin eta argitaratzea, bai idatzita, bai euskarri informatikoan, Nafarroako Gobernuko, toki entitateetako, oihan elkarteetako langileentzako eta jabe partikularrentzako”.

**160.-** 811. ekintzaren titulua aldatzea: “Oihan-kudeaketa sustatu eta kontrolatzeko lege-esparrua berregitea”.

**161.-** 811. ekintza. Oihan-kudeaketa sustatu eta kontrolatzeko lege-esparrua berregitea. Azken lerroalde bat gehitzea: “13/90 Legearen emaitzak aztertzen dituen txostena aurkeztuko zaio Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeari”.

**162.-** Beste neurri bat erantsi, 81183.aren ondoren. Hona testua: “Balioespen bat bidaliko zaio Parlamentuari, hiru urtez behin bidali ere”.

**163.-** 82153. neurriaren testua aldatzea: “Oihan-ikerketa eta esperimentaziorako zentroa sortzea, oihan-munduko beste eragile batzuren partehartze eta finantzaketarekin, beharbada”.

**164.-** 831. ekintza kentzea.

**165.-** 831. ekintza. Gastu publikoaren eragin-kortasunaren jarraipena. Azken lerroalde bat gehitu: “Auditoriak egitean, eta oihan-proiektu nagusien errentagarritasun ekonomikoa aztertzeke ereduak sortzean, kontuan izan da kasuan kasuko jarduketaren ingurugiro balioa”.

**166.-** 832. ekintza kentzea.

**167.-** 833. ekintza. Azken lerroaldea erantsi: “Oihan-lanetarako dirulaguntzak ezarriko dira, menditik ateratako etekinen arabera aldatuko direnak”.

**168.-** 833. ekintza. Nafarroako Oihan Fondoa sortzea. Ekintza azaltzeko testuaren orde beste bat jartzea. Hona: “Nafarroako Oihan Fondoa sortzea proposatzen da ekintza honetan, Nafarroako Basoei buruzko Planari eransteke finantza-tresna gisa, hurrengo helburuekin:

1. Gure Komunitateko mendietan egiten diren inbertsioen munta optimizatzea, finantzen aldetik.

2. Inbertsioak eta kudeaketa-gastuak Nafarroako Basoei buruzko Planak aurreikusitakoetara bideratuko direla bermatzea.

3. Nafarroako Basoei buruzko Planaren baliabide ekonomikoak erabiltzeko garaian, koordinazio handiagoa lortzea Nafarroako Gobernuaren eta mendien titularren -toki entitateak, batez ere-, eta Fondora sartu diren erakunde, instituzio edo entitateen artean.

Nafarroako Oihan Fondoa foru lege batez arautuko da, zeina erregelamenduz garatuko baita, eta hauexek finkatuko dituzte bi horiek: Fondoaren eraketa (aprobetxamenduen hobekuntzaren portzentaia, borondatezko fondoa, Nafarroako aurrekontuetatik eratorriak, beste erakunde, entitate edo elkartetatik heldu direnak, finkatutako ekotasen ondoriozkoak,...) eta funtzionamendua (banku-kontuak, korrituen negoziaketa, kredituetara iristea, aseguruak hartzea, zerga-arinketak...).

Toki entitateen finantza-baliabideetarako eta erabaki-ahalmenerako baldintza hobek sortuko ditu Nafarroako Oihan Fondoak, udalen autonomia zorrotz birgiratuta, beti ere”.

**169.-** 833. ekintza. Nafarroako Oihan Fondoa sortzea. 833. ekintzaren pean aurreikusitako neurriak direla-eta, hauxe proposatzen da: Nafarroako Gobernuak 1000 milioi pezetako finantzaketa erabiliko du, guztira, Basoei buruzko Planak diraueno, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen 876 milioi pezetaren orde. Hona banaketa:

1999	87 milioi pezeta.
2000	96 milioi pezeta.
2001	101 milioi pezeta.
2002	110 milioi pezeta.
2003	116 milioi pezeta.
2004	122 milioi pezeta.
2005	122 milioi pezeta.
2006	122 milioi pezeta.
2007	122 milioi pezeta.

**170.-** 83323. neurria kentzea.

**171.-** 833. ekintza. Nafarroako Oihan Fondoa sortzea, 83334. neurriko testuaren orde, hauxe jarri: “Nafarroako Oihan Fondoaren baitan diren partikular, erakunde, entitate edo elkarreentzako zerga-arinketak”.

**172.-** 841. ekintza. Oihaneko lanbide heziketa sektorearen beharrianetara egokitzea. Lerroalde bat erantsi: “Nafarroako Basoei buruzko Planaren diagnostikoaren ondoriozko beharrianetara egokituko zaien prestakuntza erdietsi nahirik, Lanbide Heziketako plan berezien garapena bultzatuko da, hurrengo arloetan: oihanen kudeaketa eutsigarria

eta zaintza, baso-suteei aurrea hartu, antzeman eta itzaltzea. Sektoreko langileen prestakuntza eta lanbide-kualifikazioa berregokituko dira, eta enplegua ere bultzatuko da, landa-ingurune herrien garapenari eta mantentzeari arreta berezia eginez.

**173.-** 84171. neurriari hauxe erantsia: “eta Zuraren Mahaiko kideen eta lehen aipatutakoen arteko hitzarmenak sustatzea”.

**174.-** 841. ekintza. Oihaneko lanbide heziketa sektorearen beharrianetara egokitzea. Neurri bat gehitzea: “84191: Lanbide Heziketako plan berezi bat landu eta garatzea bultzatzea, hurrengo arloetan: oihanen kudeaketa eutsigarria eta zaintza”.

**175.-** 841. ekintza. Oihaneko lanbide heziketa sektorearen beharrianetara egokitzea. Neurri bat gehitzea: “84192: Lanbide Heziketako plan berezi bat landu eta garatzea bultzatzea, hurrengo arloetan: baso-suteei aurrea hartu, antzeman eta itzaltzea”.

**176.-** 84271. neurriaren titulua aldatzea: “Administrazioak oihan-jakintza eta azterketak garatzeko lankidetzak sustatzea, beste eragile batzuekin batera”.

**177.-** 84282. neurriaren titulua aldatzea: “Oihan-dokumentazioari buruzko datu biltegia eta oihan museoa prestatzea”.

**178.-** Beste neurri bat erantsi, 84282. neurriaren ondoren. Hona testua: “Oihan mapa erraza landuko da, zabalkunderako”.

**179.-** 6. kapitulua. Nafarroako Basoei buruzko Planaren helmugak. Hauxe gehitu: “9. helmuga. Enplegua sortzeko eta landa-garapenerako oihan kudeaketa.

Nafarroako Basoei buruzko Planak aurreikusituen alde guztiak batu nahi dira helmuga honekin, oihanen kudeaketa osoagoa erabiliz enplegu-sorkuntza bultzatzeko; barne sartzen dira abeltzaintza, nekazaritza, oihan-produktuak eraldatzea eta hezkuntza eta aisialdiko jarduketak, besteak beste, ingurugiroari kalterik egin gabe.

Orobat, landa-garapenari dagokion alde oro, baldin eta enpresen, kooperatiben eta oihan alorreko beste entitate asoziatiboen bitartez bidera badaitezke, Komunitateko bazterretan ohiko oihan espezieak ekoizteko pizgarriak ezarri.

#### HELBURUAK

91 - Landa-garapenean eskumenik duen departamentu eta organismo publiko ororen lankidetzak Basoei buruzko Plana aplikatzeko.

#### TRESNAK

Plan honen bigarren eranskinean aurreikusitako neurri guztiak (legezkoak, erregelamenduzkoak, zerga alorreko sustapenekoak, antolakuntzari buruzkoak, teknikoak, prestakuntzazkoak, berri ematekoak eta bestelakoak), baldin eta enplegua sortzeko eta landa-garapenerako bidera badaitezke”.

**180.-** 9. helmuga. Enplegua sortzeko eta landa-garapenerako oihan kudeaketa. Hurrengo ekintza erantsi: “911 - Enplegua sortzeko eta landa-garapenerako oihan kudeaketa”.

**181.-** 4. eranskina. Basoei buruzko Plana garatzeko behar diren lege-aldaketak. Hurrengo testua erantsi 13/90 Foru Legeari: 69. artikulua (Nafarroako Gobernuak ez du zertan finantzatu behar, osorik eta Nafarroako Aurrekontuen kargura, a)tik g)ra, biak barne, bitarteko idazatietan ezarri diren ekintzak)”.

**182.-** 4. eranskina. Basoei buruzko Plana garatzeko behar diren lege-aldaketak. Hurrengo testua erantsi 13/90 Foru Legeari: “51. artikulua (bestelako oihan-baliabideak ere sartu, hala nola, energia eolikoa eta ehiza. Energia eolikoaren kasuan, dirusarreren % bat baino ez da aintzat hartuko, eta ez dirusarrera guztiak, 67. artikulua ezarri duen %20ari begira)”.

**183.-** Aurkibidea aldatu, eta irizpide bakarra erabili erlazio formalean, aurkibidea uniforme aterata dadin.

**184.-** Aurkibidea aldatu, eta 4. eta 5. ataletako 3. eta 4. azpiatalen tituluak sartu. Bosgarren eranskinaren tituluaren ordeztu, eranskin beraren buruan doana jarri.

**185.-** Aurkibideko 4.2.2. atalaren izena aldatu, eta behar bezala adierazi garapenean, eta hurrengo jarri: 4.2.2. Instalazioen hartzaileak eta 4.2.3. Biomasa.

**186.-** Aurkibidea aldatu, eta behar bezala adierazi garapenean. Hona: 6. zenbakiak, eranskinetaraina, eta 1. eranskina kendu, eta hurrengo jarri:

6. Nafarroako Basoei buruzko Planaren egitura

7. Zeharkako estrategiak (azpiatale eutsiz)

8. Nafarroako Basoei buruzko Planaren helmugak, helburuak, ekintzak eta neurriak

8.1 1. helmuga: helburuak, ekintzak eta neurriak

8.2 2. helmuga: helburuak, ekintzak eta neurriak(eta horrela, 8. helmugaraino)

9. Nafarroako Basoei buruzko Planaren aurrekontua

9.1 1. helmuga eta haren helburuak, ekintzak eta neurriak burutzeko aurrekontua

9.2. Eta horrela, 8. helmugaraino

9.9. Nafarroako Basoei buruzko Planaren aurrekontu orokorra.

**187.-** Aurkibidearen 10. zenbakia eta haren edukia aldatzea, eta haxe jartzea (finantzaketa ere 2. eranskinera pasatuko litzateke).

10: Basoei buruzko Planaren ekintzak.

10.1 Basoei buruzko Planaren ekintzak eta neurriak, 1. helmugari buruzkoak.

10.1 Basoei buruzko Planaren ekintzak eta neurriak, 2. helmugari buruzkoak.

(Eta horrela, 10.8raino)

**188.-** Hirugarren eranskinaren titulua aldatu aurkibidean eta haren idazpuruan, eta haxe jarri: “Basoei buruzko Planaren neurriak”.

**189.-** Seigarren eranskinaren titulua aldatu aurkibidean eta haren idazpuruan, eta haxe jarri: “Oihan arloko organigrama eta eginkizun administrazioak”.

Argitara dadila agintzen dut, Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikulua dioena betez.

Iruñean 1999ko otsailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--